



ARGIA



GUGGENHEIM URDAIBAI STOP
**“Bi urteko pausa hitzeman arren,
erakundeak lanean ari dira”**

U19 manifestazio nazionala

44-49. orrialdeak

#2.888 | 2024/10/13 | 4,00 €



**“Urteetan nekazaritza
intentsiborako bidea
baino ez da erakutsi”**

14 | XABIER ARRIAGA TXIPLAS



**Iruñeko euskaltzaleen
topalekua
Gazteluko plazan**

24 | LABA KULTURGUNEA



**Cádiz eta
euskal esklabo
trafikatzaileak**

30 | URRIAK 12

ARGIA EGUTEGIA 2025

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

“Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”

Eduardo Galeano



40€ Euskarria

45€

Egutegia +
Pago-egurrezko
euskarria

Egutegia 10€

Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Gaurko egun...

1924ko 22
Madelain
Frantzia

eta nazien aurka
zuen. 20 urte bete zituzten
berak zuzenduriko erresistentziak
nazien hornikuntza tren bat geldiarazi zuten
Parisen, eta granada eta suziruz erasota 80
soldadu alemaniar preso hartu zituzten.
Bettes-Chaumont, simbolo
1920ko

ARGIA 2025

APRILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

22
ASTEARTEA

AMA LURRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | XIMUN FUCHS
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 22 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRIKIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO IRUDIA:
MIKEL ARRAZOLA (ARGAZKIA)
GUGGENHEIM URDAIBAI STOP (ILUSTRAZIOA)

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

HODEITORRES / ARGIA - CC-BY-SA



14 | XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"

Abeltzaina eta bertsolaria elkarrizketatu du Onintza Enbeitak. Bizkaigane proiektuaren sortzaileetako bat, 40 urte daramatza bertan abeltzantza estentsiboa eta kooperatiba izpiritua lantzen. Bi nekazaritza mota daudela azaldu du: logikoa eta logikarik ez daukana.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Klima aldaketaren areagotzeak ezbaian jartzen du arrisku guztiak aseguratzeke aukera

Nicolas Goñi

24 | EUSKARA | IRUÑEKO LABA ELKARTEA

Euskaraz egin zuen eztanda erupzioak

Iñigo Satrustegi

30 | HISTORIA | CÁDIZ

Euskal esklabistak metropoli kolonialean

Urko Apaolaza

36 | GIZARTEA | ALDUDE IBARRA

Bakardadearen arazoari erantzun kolektiboak eman nahian dabilen mendiarte

Jenofa Berhokoirigoin

44 | KULTURA

Urdaibai eta Guggenheim aurrez aurre

Patxi Gaztelumendi

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuzá

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Ekodizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



2000
TURISTA

Azken mohikanoak

Bilboko Correo kalean ireki duten laugarren hotela da irudikoa. Luxuzkoa noski, pateretan datozen "turistentzat" beste "hotel" mota batzuk prestatuta dauzkate-eta. Azken bost urteetan zazpigarren hotela da Alde Zaharrean, eta hala, turistentzat 800 ohe egotetik, 2.000 pasa izatera igaro da –pisu turistikoa ilegalak kontuan hartu gabe—. Etxebizitzaren prezioa %17 igo da Zazpikaleetan. Komertzio txikiari gaina hartu diote postaletan agertzeko moduko denda ustez modernoek. Alde Zaharreko Bidebarrietan kalean bakarrik zortzi souvenir denda daude, esaterako. Egoeraren larria ikusita, turismo masiboaren kontra mintzatzea politikoki zuzenaren barruan sartu da, beraz arazoa sustatu eta baimendu duenak, Bilboko Udalak, "neurriak hartuko" dituela dio orain. Hitzak bai, baina ekintzak oporretan daude. Datuek diote 7.114 lagun bizi direla Bilboko Alde Zaharrean. Baina bizi baino, erresistitzen ari direla esan beharko genuke.



ALCANTARA
ALCANTARA
ALCANTARA

ALCANTARA

ALCANTARA

Mozal Legea “amaitzea” adostu dute EH Bilduk eta Espainiako Gobernuak

ERREDAKZIOA

EH Bilduk Pedro Sánchezen Gobernuarekin adostu du Mozal Legea amaitzea. Horretarako, funtsezko lau puntu aldatuko dituzte: gomazko piloten erabilera, errespetu faltak, desobedientzia, eta muga egindako kanporaketek ingurukoak. Aurreko legegintzaldian Espainiako Parlamentuko talde politikoei desberdinek landutako txostenean gehituko dituzte aldaketa hauek, eta testu hori, laster onartu nahi duten segurtasunerako lege berri baten oinarri izango da.

EH Bilduk akordioa egin du Espainiako Gobernua osatzen duten PSOE eta Sumarrekin, Mozal Legea indargabetu eta Herritarren Segurtasunerako Lege berri bat onartzeko. Mertxe Aizpuru eta Jon Iñarritu EH Bilduko parlamentariak prentsaurrekoan eman dute horren berri.

Zehazki, lau puntu dira adostu dituztenak. Errespetu faltei dagokienez –gehien ezarri diren isunak dira– hemendik aurrera salaketak “arrazoi objektiboekin” ezarri beharko dira, “subjektibotasunarekin” amaituta, diotenez. Desobedientziagatik isunak jartzeko baldintzak ere aldatzen dira eta, gainera, arau hauste larri izatetik arin izatera igaroko dira.

“Lorpen hau kolektiboa da eta horrela aldarrikatzen dugu. Lan diskretu eta zorrotz baten ostean posible izan da”. Eskerrak eman dizkiete legea aldatzeko borrokan aritu diren talde eta elkarte guztiei

GOMAZKO PILOTARIK EZ

Bestetik, gomazko piloten erabilera ordezkatuko da eta “hain kaltegarriak ez diren materialak” erabiliko dira: “Euskal gizartearen aldarrikapen nagusietako bat zen hau”, azaldu du Aizpuruak. Azkenik, muga egindako kanporaketekin ere amaituko da eta sei hilabeteren buruan Atzerritarren Legea aldatuko da horretarako.

Aizpuruak azaldu duenez, puntu horiek joan den legegintzaldiko porentzian landutako txostenari gehituko zaizkie, Mozal Legea indargabetuko duen beste lege bat onartzeko. Datozen orduetan aurkeztuko dute testu berria, eta horretarako, lege aldaketa bultzatu

duten talde politiko guztien esku utzi dute jadanik.

“Lorpen hau kolektiboa da eta horrela aldarrikatzen dugu”, azaldu dute EH Bilduko kideek. “Lan diskretu eta zorrotz baten ostean posible izan da”, azaldu du Jon Iñarrituk eta eskerrak eman dizkiete legea aldatzeko borrokan aritu diren talde eta elkarte guztiei.

LEGE POLEMIKOA 2015ETIK

Herritarren Segurtasunerako Legea 2015ean jarri zen martxan, Alderdi Popularrak Espainiako Parlamentuan gehiengo absolutua zuenean. Geroztik ehunka milaka lagunek isuna jaso dute haren bidez Espainiako Estatuan, baita Hego Euskal Herrian ere, Espainiako Polizia, Guardia zibila, Foruzaingoa eta Ertzaintzaren eskutik, besteak beste.

Legeak kontrako jarrera eta mobilizazio ugari sortu ditu, askatasunak murriztu eta elkarte zein kolektiboen jardura eta aldarrikapenak isun ekonomikoekin itotzen dituelako, herritar orenen gaineko kontrola ezarrita.

2016an Eusko Legebiltzarrak adierazpena onartu zuen legea ez aplikatzeko, EAJk, EH bilduk eta PSEk alde bozkatu ondoren. Baina hala ere Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jarraitu du salaketak jartzen, Ernaiko 133 kideri jarritakoa da horren adibide garbi bat.

Nafarroako Legebiltzarrak, berriz, berriketan eskatu du Mozal Legea erreformatzea, “oinarrizko eskubideak eta askatasunak murrizten dituen legea” delako. PSN, EH Bildu, Geroa Bai eta Contigo-zurekin alderdien botoak izan ditu adierazpenak.

AURREKO SAIAKERAK HUTS

Pedro Sánchez agintera iritsi zenetik Espainiako Gobernuak mahai gainean izan du legearen alderdirik eztabaidagarrienak indargabetzeko erabakia. 2023an legea aldatzeko pausoak eman zituen, baina ez praktikan indargabetzeko nahikoak, eta horregatik ez zuen EH Bilduren eta ERCren babesik izan, aldaketak azalekoak zirela iritzita. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Lodifobia



UXUE APAOLAZA LARREA

Onintza Enbeitak bere urriaren 4ko zutabeen lodifobia salatu zuen ginekologoari egindako bisita batean bizi izandakoaren harira. Denok gorputz berean sartzeko tema denok bizi dugula esan genezake, eta esaten da, eta egia da, denok entzun ditugu zerak, baina egia da baita ere... debekatuta-debekatuta dagoena lodi egotea dela. Lodia izatea.

Ni argala naiz. Oso argala naiz. Urduri nagoenetan sabela ixten zait, eta kontuz ibili behar dut aurretik pixka bat loditu ez banaiz, hezurretan bukatzen dudalako berehala. Aurpegian igartzen zait, zimurrak asko markatzen baitzaizkit, begizuloak amildegitu. Tentsioa baxu, zorabiatu egiten naiz maiz, eta gaizki jan, azkar bizi, gaixotzeko ere ez zait asko falta izaten zigarro bat gehiago erretzen badut. Entzun behar izan dut “puag”-en bat, “nazka pixka bat ematen du”... baina oso bakanetan. Inoiz ez dit mediku batek errietarik egin horregatik. Ezta haurdun gelditu nintzenez ere.

Haurdun gelditu nintzenezan jan eta jan aritu nintzen: 1,81 neurutzen dut, ez nintzen 60 kilora iristen, eta hasi nintzen hirurogei kiloak pasa, eta itxura osasuntsua hartzen. Nire jateko faboritua hanburgesa bokadiloa zen, patata frijituak barruan sartuta. Edozein ordutan. Ginekoloarengana iritsi nintzenezan hirurogeita hamarrek pasata nituen. Lehen aldiz nire bizitzan, errieta egin zidaten baskulak markatzen zuen pisua zela-eta. Eta ezin izan nuen erantzun, ez dakit zergatik, beti naizelako iraintzen nautenak baino errespetutsuagoa: “Zuk ikusiko duzu zure umeari zer egiten diozun” (“Ez dizut esan zaldia txutatzen ari naizenik, makarroiak jaten ditut, marihuanarik gabe”); “horrelako omenaldiak egiten badizkiozu zeure buruari goizero” (tostadak gurinarekin gosal-tzeagatik); “ezingo zaituzte ohe batetik bestera mugitu, jartzen zareten moduan” (“arrain batek zera zaitzala, maja, eta utzi sagarrak jateari, eta jan iezadazu...”). (Ulertuko zenuten zergatik ez nion momentuan erantzun).

Nire argaltasuna ez da osasungarria. Ez zen umekiarentzat ere. Eta lodia nengoelako egin zidaten errieta oraindik argal ez, argalegi nengoela. Mediku batek. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Migrazioa

Zazpi herritarrek Hendaiako komisarian deklaratu dute eta urtarrilean berriro ere deklaratu beharko dute Baionan, “talde antolatuan migratzaileak Frantziako Estatuan sartzen laguntzea” leporatuta. Lagun ugari mobilizatu da, elkartasuna ez dela delitua aldarrikatzeko.

Estatuen biktimak

Urriaren 12an Guardia Zibilak ekitaldia egingo du Gasteizko erdigunean lehen aldiz, eta horri erantzunez ekimena iragarri du egun berean Memoria Osoak. Salatu du biolentziaren biktima izan direnen arteko desberdintasunak bultzatzen ari direla hainbat instituzio, eta norabidea zuzentzeko deia egin du.

EHU

Irain matxistak, homofoboak, frankistak, diskriminatzaileak... kaleratu dituen Álvaro Sánchez Hernández Zuzenbideko irakaslea lanpostutik kentzeko prozesua martxan jartzea erabaki du Euskal Herriko Unibertsitateak, egoera juridikoki aztertu ondoren.

Euskal



ULA IRURETAGOIENA

Donostiako Zinemaldiak euskal zinemaren ospakizun ekitaldian euskal zinemak euskara gutxi duela esan zuen Edurne Azkaratek eszenatokiaren mikrotik, ozen. Esaldiak burrunba egiten du egiazkotasunagatik. Arkitekturaren eszenan antzerako lema errepika daiteke eta ziur naiz beste hainbeste kultur eta sormen ertzetan, antzera dela. Euskarazko ekoizpena kultur komunitateen txikiaren txikia da, komunitate nimiñoa da. Azken mohikanoak. Baina zinemaldiko ekitalditik interesa sorrarazten dit ea zer den euskal adieraren atzean dagoen ulermena, euskara zati txiki bat besterik ez bada, euskaltasunari zer lotzen zaió? Euskal made in Basque Country zigilua-rekin ez ote den berdintzen. Lotura argia dago lokaltasunarekin, 0 km, hemengo. Baina galderak sortzen ditu. Hemengo, hemengo dirulaguntzekin ekoitzi delako? Hemen jaiotakoek egina? Hemen kotizatzen dutenek? Hemengo lurretan pentsatu edo fisikoki hemen burutu delako? Bertakoen interesguneen inguruan sortzen delako? Baldintza horiek guztiak bete ezean, euskal nortasun bat definitu al daiteke sortzen den horretan? Hemengo nolakotasun bat ulertuko dugu euskal adjetibodun kultura kontsumitzean?

Euskal arkitektura elkargoak ez du bere ekitaldietan euskaltasunik gorai-patzen, baina EAE eta Nafarroako lurralde-tako arkitektoak biltzen ditu. Euskarak leku gutxi dauka erakuntzaren langileen artean erdaraz beste hizkuntza soinu desberdinak entzuten direnean. Baina euskal izaera lurraldetasun komun batek eskaintzen du ezinbestean, hemengo arautegien aplikazioaren kasuistikak eta gizartearen sentsibilitate espezifikoki erantzuten dion lanbidea izanik. Horren lekuko, Arkitekturaren Astea antolatzen diren programako aktibitateak. Matilde Urcelay figurari omenaldia egin zaió eta ondasun eraikineei ere bai, euskal lurraldetako industria ondasunaren birgaitzearen hausnarketarako erakusketa eta mahai-inguruekin. Hemengo kezkek. Baina nahikoa euskal izango ote? ●



JACOBA MANTEROLA / FOKU

Memoria gara

XABIER LETONA BITERI

Historiak laguntzen digu ulertzen zer gertatu zen, baina baita gaur egun zer garen ulertzen ere. Nola ulertu gaur egungo mundua AEBetako sorrera eta Frantziako Iraultzaren sorrera ezagutu gabe? Nola ulertu gaur egungo Mendebaldeko hegemonia azken bost mendeetako kolonialismo europarraren sustraietan arakatu gabe? Nola ulertu Ekialde Erdian gertatzen ari dena Mandatu Britainiarra, Balfourreko Adierazpena edota sionismoaren sorrera ezagutu gabe?

Autoa gidatu daiteke atzerako ispiluari begiratu barik, baina lasai asko esan daiteke gidariak istripua izango duela berandu baino lehen. Atzera begiratzeak laguntzen digu iraganeko akatsetatik ikasten eta haiek ez errepikatzen. Eta teorikoki bederen, giza eskubideen logikak gidatzen duen munduan, hiltzea, bortxatzea eta arpilatzea arbuigarriak badira, Europak onartu beharko luke horiek eguneroko ogia izan direla bere historia kolonialean.

Hala balitz, gaur egungo Espainiako Estatuak ez luke eragozpenik Ameriketara begiratzean "sentitzen dut" xume bat esateko: "Gure arbasoen konkistak milioika heriotza eragin zuen zuenean, arpilatzea, desjabetzea, esklabotza... Gu ez gara gertaera haien errudun, baina zinez sentitzen dugu gure arbasoek basakeria haiek egin izana". Hori zintzo esaten bada, asko esaten da. Gero akaso etorriko da barkamen eskaera, edo gertatutakoaren hausnarketa bateratua, kalte ordain morala, monetarioa, ez errepikatze borondatearen adierazpena... batek daki zer, baina etorkizunera bestela begiratzeko zoru berri bat finkatuko litzateke.

Bada ordua Espainia zor hori guztia kitatzen has dadin. Mexikoko agintariak Espainiako Gobernu barkamenarekin akuilatu duten une hau pauso bat emateko aukera ederra litzateke, baina Espainiak jarraitzen du "historia partekatuen harrotasuna"-ren ikuspegian. Iraganarekiko begirada horrek asko diosku Espainiako agintarien gaurko jarreraz. Eta euskal herritarrok zer? Ezaguna da gure arbasoetako askok heriotza eta arpilatze historia horretan izan zuten papera, beraz, bada guk ere antzerako ariketa egiteko sasoa.

Euskal gatazkara etorrita ere, Espainiako Estatuak azken hamabost urteetan landu duen oroimen ikuspegia gehiago izan da irabazlearen kontakizuna finkatzeko ahalegina, aurrera begirako bizikidetzak lantzeko tresna baino. Batzuei gehiago interesatzen zaie kondena berbaren erabilera politikoa, "sentitzen dut" horrek zabal ditzakeen bideetan arakatzeko baino. Bide berriak, giza eskubideetan eta printzipio demokratikoetan oinarritutakoak. Oraindik urrats ugari eman behar dira alde guztietatik, baina seguruenik dena litzateke oso desberdina urriaren 12ko desfileetan Guardia Zibilak denok dakiguna aitortuko balu: "Bai, torturatu genuen, sentitzen dugu". Jakina, ez da hori gertatuko. Horregatik, oraindik ere, euskal gizartearen zati handi batentzat desfile horiek irabazlearen eta zapaltzailearen desfileak dira. ●

%2

igo da, %0tik, oinarrizko elikagaien gaineko zerga Hego Euskal Herrian, urria sartzearekin batera. Hala mantenduko da urtea amaitu arte. Orain arte, 2023ko urtariletik, indarrean zen oinarrizko elikagaiei BEZik ez aplikatzeko neurria.

%18,5

igo da emakumeenganako diskriminazio sexista EAEn, azken bi urteetan. Hala dio Arartekoak argitaratu duen ikerlanak. Diskriminazio gehien gertatzen diren espazioak kalea eta sare sozialak dira.

%3

baino ez da asetzen etxebizitza publikoen eskaria Nafarroan. Nafarroako gazteen %16,2 baino ez dago emantzipatuta, eta gurasoen etxetik alde egiteko batez besteko adina 30 urtetik gora da.

“Tentsio handiko eremuak ez du iraultza ekarriko, baina bai alokairuak neurri gabe ez haztea”

AIZPEA OTAEGI

Errenteriako alkatea, hiria tentsio handiko eremu bihurtu dela-eta.

EUSKADI IRRATIA (2024-09-30)



“Harrigarria da nola konbentzitzen dituzten estatubatuarrak beste herrialde batzuk gorroto ditzaten, haien aurkako indarkeria masiboa onartzeraino (Vietnam, Irak, Libia, Libano, Iran...), nahiz eta ez dituzten herrialde horiek batere ezagutzen eta ez diren mehatxu AEBentzat”

JASON HICKEL

Irakaslea unibertsitatean.

2024-10-05

“Gezurrez eta gorrotoz betetako kanpaina pairatu dut. Txistuak, irainak, mehatxuak... Norbaitek jotzeko ahalegina ere egin du”

**IGOR ENPARAN**

Hondarribiko Alardearen harira, jaietan sufritutakoaz herriko alkatea.

ARGIA.EUS (2024-10-02)

TEKNOLOGIA

Digitalizazio txatarra



DIANA FRANCO EGUREN

Behin azaldu zidaten spam hitzak adierazten duela txerrien soberakinetatik herri anglosaxoietan egiten zen oso kalitate txarreko hesteki bat. Beharbada hitza ezaguna zaizu, posta elektronikoa karpetatxo bat duzulako nahi ez dituzun mezuak jasotzen dituen. Hitz hori izan zen eremu digitaletan bizi kalitaterako kaltegarriak diren zerbitzu eta praktikak txatar-janariariarekin alderatzeko ezagutu nuen lehen adibidea. Lan asko egin dut arrakala digital egoeran dauden pertsonekin, eta spamaren ideia zabalduz, “digitalizazio txatarra” euren bizitzaren parte dela esan dezaket: posta elektronikoa iragarkiz beteta dute garrantzitsua dena ezin bereiztuz, aplikazioen jakinarazpenek so egiteko beharra sortzen diete uneoro, publizitateak inbaditzen du euren pantaila pop-upak zelan itxi ez dakitela... Arreta eta indarrak kaltetzen dizkien dinamika bati lotuta daude.

2022an, lege bat atera zuten: baimenik gabeko dei komertzialen, spam deien, debekua. Berria entzutean, denok irudikatzen genuen mundu bat non ez genuen berriro pairatuko dei komertzialen edota dei iruzurtsuen mehatxua. Baina ez da horrela izan, legea hor dagoen arren, herriarrok deiak salatu behar ditugu gure eskubideak babesteko. Arazo horretaz ohartuta, Datuen Babeserako Espainiako Agentziak salaketak egiteko galdetegi bat martxan jarri du, baina salatu ditzakegun enpresak dira jada jokabide kode bat onartu dutenak, ehun bat. Zer egin ordea hor ez dauden enpresekin edota iruzurra egiten duten enpresekin? prozesua korapilatzen da, askotan zeintzuk diren ere ez dakigu, euren aurka egiteko dugun datu bakarra telefono zenbaki bat da. Gaia oso konplexua da benetan, eta heziketa beharrezkoa da, zaurgarriak diren pertsonak boteretzeko, baina horrez gain ez legoke txarto berrikuntzaren beharraz ahoa betetzen duten horiek “digitalizazio txatarrari” mugak jartzeko irtenbide sortzaileagoak bilatuko balituzte. ●

NAZIOARTEA



25 herrialdetan emakumeak agintean

AXIER LOPEZ

Munduko estatuetako agintaritzetan dauden emakumeen inguruan Nazio Batuen Erakundeak zabalduak datuak aletu ditu IPS hedabideak, pasa den astean Mexikon bere lehen presidente emakumezkoa, Claudia Sheinbaum ezkertiarak, agintari makila hartu zuela baliatuta. Gero eta emakume gehiagok du presidente edo estaturu ardurak, baina orotara kopuruak marjinala izaten jarraitzen du.

NBEk 195 estatu aintzat hartzen ditu munduan, Palestina barne. Bada, horietatik 25ek bakarrik dute emakume bat botere instituzionalaren lehen lerroan. 112 herrialdetan inoiz ez dute emakume bat izan agintaritzan politikoan.

Europar Batasuneko Batzordeko presidentea, Europar Batasuneko Batzordeko presidentea, Danimarkan, Eslovenian, Estonian, Grezian, Italian, Letonian, Lituanian, Maltan, Ipar Mazedonian eta Moldavian emakumeak daude presidente edo lehen ministro karguetan, eta Ursula von der Leyen eskuindarra da Europar Batasuneko Batzordeko presidentea.

Ameriketean, Xiomara Castro Hondurasean, Dina Boluarte Perun eta Claudia Sheinbaum Mexikon. Sylvanie Burton (Dominika) eta Christine Kangaloo (Trinidad eta Tobago) presidentea dira, baina botere exekutiboaren lehen ministro gizonen esku dago. Barbadosen, bi ardurak emakumezkoek betetzen dituzte: Sandra Mason da presidentea eta Mia Amor Motley lehen ministroa.

Afrikan, Etiopian, Tanzanian, Togon eta Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeak dituzte estaturu


edo gobernuburu, eta Asia eta Ozeanian, Indian, Marshall uharteetan eta Samoan.

NBERen datuen arabera, munduko parlamentu-erlekuak %26,9 baino ez dute betetzen emakumeek, 1995ean %11 pasatxo ziren ordea. Ministerio-postuen kasuan, %23 emakumeena da, eta 141 herrialdetan ministroen herena baino gutxiago dira. Zazpi herrialdek ez dute emakumerik beren kabinete exekutiboetan.

Arloka begiratuta, emakumeen presentzia handiena duten bost ministerioak honako hauek dira: Emakumea eta genero-berdintasuna, familia eta haurrak, gizarteratzea eta garapena, gizarte-babesa eta gizarte-segurantz, eta indigenen gaiak eta gutxiengoak. Aitzitik, Ekonomia, Defentsa, Justizia eta Barne Arazoak, ia erabat gizonen mende daude oraindik.

Euskal Herrira etorrita, Jaurlaritzan inoiz ez da emakumerik izan lehendakari postuan. Nafarroan bai, Yolanda Barcina eskuindarra izan zen lehena 2011n. Eta haren ostean Gerroa Baiko Uxue Barkosek eta egungo lehendakari PSNko María Chivitek hartu dute aginte makila. Ipar euskal Herriko Hirigune Elkargoak bizitza laburra du, 2016an eratu baitzen, eta ordutik gizon bakarra izan du presidente, Jean-René Etchegaray. Elixabete Etxanobe eta Eider Mendoza jeltzaleak izan dira lehen bi emakumeak Ahalduen Nagusiaren ardura hartu dutenak, 2023an. Araban 1476tik dozenaka ahalduen nagusi izan dira, eta oraindik ez da emakume bakar bat ere postu horretan izan. ●

Palestinaren alde



Bilboko eta Iruñeko manifestazioetan milaka lagun elkartu dira urriaren 5ean. Palestinarekin elkertasuna plataformak "basakeria geldiarazteko" aukera bakarra dagoela azpimarratu du: Israelgo Estatua desagertzea. Urgentziazko eskariak egin ditu plataformak, besteak beste Palestinari erresistentziarako eskubidea onartzea eta konplize diren gobernu, enpresa eta alderdiak presionatzea sionismoarekin harremana hausteko. Manifestazioak eta protestak mundu osoan egin dira.



Lan baldintzak

Garbitzaile batek gorpil-aulkian ekin behar izan dio lanari Iruñeko Mendigoiti ikastetxean. Asteazkenean ez joateko esan zioten Zaintzen enpresakoek eta ostegunean berriro baietz, aurkezteko lantokian. LABek egoera salatu du.

Espekulazioa

Marieneko lurak etxebizitzaren eraikuntzara bideratu beharrean, laborantzarentzat atxikitzearen alde apirilean Kanbon egindako protestekin lotuta hiru lapurtar atxilotu ditu Frantziako Poliziak. Aske geratu badira ere, otsailean epaituko dituzte.

Langile borroka

CGT, FSU, LAB, Solidaires eta USL sindikatuek deituta, greba eguna izan da urriaren 1a Ipar Euskal Herrian, lansarien, pentsioen eta zerbitzu publikoen alde. Izan ere, aurrekontuei buruzko eztabaidak hasi dituzte Frantziako Asanblada Nazionalan.

KLIMA ALDAKETAREN AREAGOTZEAK EZBAIAN JARTZEN DU ARRISKU GUZTIAK ASEGU RATZEKO AUKERA

Karibea eta Ipar Amerika jo dituen Helene urakanak erakutsi bezala, klima aldaketak indarturiko muturreko eguraldien kostua kolosala da. Hainbertze, non eta aseguruak horren arabera garestituko diren, arrisku berriei aurre egiteko asmoz. Klimaren bilakaera hori gelditu ezean, aseguruak ordaindu ezina ere gertatu daiteke noizbait, eta horrek hainbat jarduera ekonomikoren bukaera eta eskualde zenbaiten hustea ondorioztatuko luke. Austeritatea zergatik ez da zor klimatikoaz arduratzen?

 NICOLAS GOÑI

Helene urakanak oso gogor jo ditu Kuba eta AEBetako hego-ekialdea, azken honetan 167 pertsona hilik. Floridako ipar kosta –Big Bend eskualdea– jo duen urakan handiena izan da, eta Kubako Pinar del Río probintziaz AEBetako Virginiako Estatura arte zabaldu dira uholdeak, lur jausiak, urtegien gainezkatzeak eta elektrizitate hornidura eteteak. Ipar Karolina mendebaldeko Mendi Beltzen eskualdean uholde bereziki gogorrak izan dira. AccuWeather eguraldi aurreikuspen agentziaren arabera, AEBetan kalte materialak 145.000 milioi dolarretik gorakoak izanen dira.

Peter Kalmus klimatologoa harritu zen hedabide handietan hondamendi hori ez baitzen klima aldaketarekin lotzen. Hala adierazi zuen *Democracy Now* hedabidearekin egindako elkarrizketan: "*The New York Times* egunkarian Ipar Karolinaren mendebaldeko uholdeei buruzko artikuluak irakurtzen aritu naiz. Artikuluek klima aldaketa ez zuten aipatzen, ezta aipu bat ere; nahiz eta horrek berak eragin uholdeak. Horretaz harago gehiegizko beroketa atzeraezinaren testuinguru zabalagoan gaude, erregai fosilen industriak eragindakoa. Hainbat hamarkadaz gezurretan eta ekintzak oztopatzen ibili dira. Planeta gehiegi berotzen ari da. Atzeraezina da. Erregai fosilen industriaren eragina da. Eta 'industria' diot zehazki, ez 'erregai fosilak', industria horrek dituelako sistematikoki ekintzak

oztopatu azken ia 50 urteotan, hamarkadaz hamarkada. Hori okerrago izanen da planetak berotzen jarraitu ahala. Etorkezinean ekaitz latzagoak ikusiko ditugu. Erregai fosilak erretzen jarraitzen duguno eta industria hori desinformazioa zabaltzen eta ekintzak oztopatzen uzten deno, planetak berotzen segitzen du. Ozeano beroagoak dituzte elikatzen halako ekaitzak, zaluago areagotzen direnak eta askoz indartsuagoak direnak. Egurats beroagoek ur gehiago eduki dezaketenez ditugu halako euriteak pairatzen, orain-txe gertatzen ari diren uholdeak eragiten dituztenak. Nire ustez, hori da irudika dezakegun gauza zitalena: erregai fosilen sektoreko buruzagi eta lobbyariak gezurretan ibiltzen jarraituko dutela beren banku kontuak betetzeko gisan, eta hori gure planetaren eta gizateriaren etorkizunaren kalte atzeraezinerako".

NORK ORDAINDUKO DU?

Erregai fosilen industriak hamarkada horietan irabazteari utzi nahi ez izanagatik, hainbat mendez faktura ordaindu beharko dugula oroitaratzen digu Kalmusek. Jende askok oraindik klima aldaketaren ondorioak ukatzen jarraitzen badu ere –ARGIAren 2837 aleko *Muturreko eguraldiak ez dira gai haiek bakarrik kontzientziak pizteko* erreportajearen aipatu bezala–, aseguru-etxeek gero eta argiago dute: arriskuak jada ez dira joan den mendean bezalakoak, eta arrisku horien aurrean aseguru egiteko bal-

dintzak ezberdinak izan beharko dira. Frantziako aseguru-etxeen federazioak, adibidez, aurtengo martxoan argitaratu duen txostenean azpimarratu du eguraldiari loturiko kalteak areagotu direla maiztasunean eta larritasunean. Dioenez, Frantziako Estatuan kalte horiek 6.500 milioi euroko kostua izan zuten 2023an, aseguruaren sektorerako inoizko hirugarren urte garestiena izan zen. Azken lau urteotan muturreko eguraldien kalteen kostua urtean 6.000 milioi eurotik gorakoa izan da –aurreko hamarkadan baino nabarmen goragoa eta aurreikuspenek ziotena baino %18 altuagoa–. Kostu handiena izan dute kazkabar ekaitzen kalteek, 2022ko lehortekoek eta 2023ko ekaitz eta uholdeenek. Kalte zuzenez gain, zeharkako ondorioak ere badituzte, demagun, azpiegitura eta finantza arazoak ere sortuta. Etxebizitzetarako bereziki kezkarriak dira, adibidez, lehorte eta sasoi euritsuen aldizkatzeak ondorioztatutako lur buztintuen uzurtze eta hanpatzeak. Buztinen joera horiek etxeen hoditeria kaltetu dezakete, eta eraikinetan pitzadurak sortu, epe luzean hainbat etxeren bizigarritasuna kolokan ezarrita.

Sorpresarik gabe, muturreko eguraldien ugaritzearen –eta ugaritze honen azelerazioaren– ondorioz aseguru-etxeek beren prezioak igoko dituzte. Hala iragarri dute bederen Frantziako Estatukoek, eta ez dira ziur aski garestituko diren bakarrak. Etxebizitzen eta

HELENE URAKANA

Helene urakanak sorturiko uholdeak Ipar Karolinako Estatuan. Klima beroago batean, urakanek ur gehiago eduki dezakete eta kalteak areagotu.



WIKIMEDIA

lanbide-kontratuen prima %12tik %20 ra igoko da 2025an, eta suteen aurkako %6tik %9ra. Igoera horiekin espero dute 1.200 milioi euro gehiago biltzea, 2015etik aseguruaren sektoreak pairatu duen defizita leuntzeko asmoz.

DENA ORDAINTEKO, HAZKUNDE GEHIAGO?

Izan kalte zuzenen kostuen bitartez edo kalteen arriskuari aurre egiteko aseguruaren kostuen bitartez, klima aldaketak jarduera ekonomikoentzako aukerak murriztuko ditu. Ekonomialari batek beharbada erran lezake arrisku berriek bertze hainbat sektore garatuko lituzketela, hala nola eraikinen konponketa edota uholdeak desbideratzeko dikeen erainkuntza, eta horrek BPGaren haz-

kundea ondorioztatuko ligukeela. Aupa! Baina mundu materialari dagokionez, hau da, elikatzen eta aterpetzen gaituenari dagokionez, ez genuke aberasterik sumatuko, prekarizazioa baizik. Zer gertatuko da, adibidez, urakan edo tifo arrisku handiegia izateagatik eraikin eta enpresa gehienei aseguru egitea garestiegia bilakatzen bada Floridan, Texasen, Japoniako hegoaldean edo Taiwanen? Edo Belgika, Alemania edo Txekiako hainbat eskualdetan uholde arriskua garestiegia bilakatuko bada? Edo bertze hainbat tokitan nahaspilatzen diren lehorte, bero uhin eta uholde arriskuak -Kalifornia edo Mediterraneo ingurua kasu- garestiegiak bilakatuko badira? Jarduera asko ekonomikoki bideraezina bihurtuko lirakeke, inbertsio guziak

edonoiz deuseztatzeko arriskuagatik eta berreraikitze aukera eta laguntza oso murrizteagatik. Enpresa gero eta gehiagok, ziur aski, itxi edo alde egingen luke, eraikinetan edota azpiegituretan kalte konpondu gabeak metatuko lirakeke, eta ihes egin ezin dutenak baizik ez lirakeke geldituko eskualde horietan.

Errefuxiatuen aurkako neurriak zorrotzen ari diren une honetan, ez dugu aski ongi ulertu gu edo gure haurrak errefuxiatu izan daitezkeela noizbait, hondamendien kalte konponezinen ondorioz. Eta austeritatea berriz modan jartzen ari den une honetan, ez dugu aski ongi ulertu belaunaldi berriei uzten diegun zor atmosferikoak -pilatutako berotegi efektu gasak- etorkizuneko oparotasuna zenbat kaltetuko dien. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Xabier Arriaga Txiplas

BASERRITARRA



GIPUZKOAKO ENBA-K ETA EHNE-K NEKAZARITZA EREDU BERA DEFENDATZEAK ASKO ESATEN DU



Emakume bat ikusi zuen Xabier Arriagak Gernikako kafetegi batean kafesnea esne gaingabetuarekin eta gurinezko opil batekin hartzen. Orduan konturatu zen nolako kontraesanetara ohitu nahi gaituen sistema kapitalistak.

 ONINTZA ENBEITA  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

1980ko hamarkadan nekazaritza politika berriak idatzi ziren, eta baserritar txikiak desagertzen hasi ziren. Zuek, oster, kooperatiba sortu zenuten nekazaritza estentsiboan oinarrituta.

Nekazaritzari heldu nahi genion gazte batzuk ginen, baina argi geneukan egiten genuena eginda ere, zuzenean salduko genuela.

Orduan esne lantegi handiak sortu ziren eta esnea haiei saltzea zen eskaintzen ari ziren alternatiba.

Bai, baina bazeuden esnea zuzenean saltzen zuten baserritarrak. Gernikara jais-ten ziren kantinekin, eta erosle bakoitzari bere ontzira banatzen zioten behar zute-
na. Osasun baldintzei begira, ikusten ge-
nuen kantinean ez zela izango bidea, eta

plastikozko poltsetan hasi ginen esnea saltzen. Aurrera egin genuelakoan, atzera egin genuen, ordea! Denborarekin, plasti-
koa kendu egin dugu, eta kristalezko boti-
letan saltzen dugu esnea. Gero botilak
berriz biltzen ditugu berrerabiltzeko.

Hasieratik izan zineten kooperatiba?

Filosofiaz bai. Hala ere, orduko legearen arabera, gutxienez sei bazkide behar ziren kooperatiba izateko, eta ez ginen hainbeste. Funtzionamenduaz oster, guk beti egin dugu lan denok batera es-
tatusik gabe: ez dugu nagusirik izan. He-
men denok izan gara berdinak.

Lortu duzue filosofia horri eustea?

Bizitzaren gorabeherengatik hasieran egon ginenetik Jon Barainka, *Saskel*, eta biok geratu gara orain arte. Tartean jen-

de asko pasatu da Bizkaiganetik, baina pabiloi zaharretik berriraino ekarri dugu gure filosofia. Behin adin batera iritsita, pena ematen zigun 40 urtez eutsi dugun hori bertan behera uztea, eta belaunaldi aldaketa zelan egin pentsatzen hasi gi-
nen. Ikasleak etorri izan zaizkigu Derio, Fraisoro edo Artzai eskolatik praktikak egitera, eta batzuk lanean geratu dira hemen. Saskel-en iloba bat ere hemen ari zen gurekin; baita herrian bizi zen Leire ere. Biologoa da izatez, baina hemen ari zen eta ari da. Guk proiektu bat landu dugu 40 urtetan, eta hori eman diegu, ze gu noizbait hil ere egingo gara!

Nekazaritza eskolatik-eta datozenek nekazaritza estentsiborako ideiarik ekartzen dute ala intentsiboa da transmititzen dena?



Xabier Arriaga, Txiplas

ERRIGOITI, 1957



Mekanikari doitzaille ikasi zuen Lanbide Heziketan, baina ez da sekula titularen bila joan. Nahiago izan du sinisten duena egitea eta egiten duenean sinistea. Erretiroko adina izan badu, baina jubilatutako hitza latinetik datorrela esplikatutako digu: "Jubileo-tik dator, eta gozatzea esan nahi du". Ez dago bada dudarik, Txiplasek, Bizkaiganean, lan egiteaz gain, gozatzeko jarraitzen du.

Urte askotan bai nekazaritza eskoletan eta bai administrazioan, intentsiborako bidea baino ez da erakutsi. Deriotik hidroponiaren ideiarekin etortzen ziren, Artzai Eskolakoak 400-500 ardiko pabiloietan pentsatzen eta Fraisorokoak behiak modu intentsiboan nola ustiatu ikasita. Orain, oster, nik uste dut ikasleek esaten dutela hori ez dela haiek egin nahi dutena.

Asko kosta zaigu, orokorrean, intentsiboaren arriskuak ikustea?

Bizkaiganean hasi eta laster Europako Merkatu Komunean sartu ginen. Ordu arte, hemen baserrietan bazeuden behiak, jakina, baina asko jota hama-bost behiko baserriak ziren. Europako legediak dena aldatu zuen. Ekoizpen bakarrera jo zen: edo esnea, edo okela, edo barazkiak. Garai horretan bidaia bat antolatu zuen EHNE sindikatuak nekazaritza intentsiboaren ondorioak ikusteko. Britainia, Alemania eta Belgikan ibili ginen. Baserri txikiak galtzen zeudela ikusi genuen, hiltegi txikiak desagertzen, lurra kutsatuta... nekazaritza ekologikoa ere orduantxe ikusi nuen lehenengoz. Bidaia horretatik bueltan jarraitzen genuen egin nahi genuena guztiz definitu gabe, baina zer ez genuen egin nahi argi ekarri genuen.

Ordura arte ez zenuten ekologikoa egiten?

Nire ustez nekazaritza mota bi daude: logikoa eta logikarik ez daukana. Guk, asko jakin gabe, logikari eutsi genion. Orduan pentsu ekologikorik eta ez zegoen, baina guk behiak beti ibili genituen larreetan, esate baterako. Erabaki genuen belardietan abonatu kimikorik ez erabiltzea. Zertarako? Gu jaio aurretik ere belardiak bazeuden eta ez zitzairen halakorik botatzen. Gero, Araba eta Nafarroan ibili ginen zereal ekoizleen bila, eta hori topo egin genuen Alfredo-rekin, Araban. Urteekin bai guk eta bai berak ekologikoaren ziurtagiria lortu dugu, eta dibertsifikatuz joan gara, baina gure logika nekazaritza iraunkorra egitea izan da hasieratik.

Denborak arrazoia eman dizue?

Nekazaritza intentsiboa ez da ona ez gizartearentzat ez osasunarentzat: behia urte biko lehertu, lurra agortu... eta hori dena zertarako? Gero eta janari txarragoa egiteko? Ez dauka zentzurik. Administrazioak, Europakoak zein hemengoak, badaki hori, baina agroin-

dustriak eta agrokimikoek diru asko mugitzen dute.

40 urte horietan zertan nabaritzen duzu zuek sektorea aldatu egin dela?

Orain ere gutxiengoa gara, baina azken urteetan baserrian instalatzen diren gazteak gero eta gehiago doaz estentsibora. Akaso, Nafarroara bazoaz, Arabara... zereal ekoizleak eta intentsiboan egongo dira, baina orokorrean, gero eta gehiago datoz ekologikora eta estentsibora. Kontua da administrazioak ez duela egin benetako apusturik. Dirulaguntzak banatzen dira, baina intentsiboari ematen zaizkionak adibidez, agrokimikak jaten ditu ia erabat. Ez dago interesik eredu estentsiboaren aldeko apustua egiteko. Duela 40 urte zorrotzat hartu gintuzten, baina gure aurretik ere baziren ardiak eta behiak eta ez zegoen halako dependentziarik pentsu enpresa handiekiko edo botikiekiko.

Inguruko gazte askorentzat eredu izan zarete.

Nik uste dut honetan aurrelariak gure aurrekoak izan zirela. Guk lana etxetik atera genuen. Bikotean edo familian lan egin beharrean, kooperatiba sortu genuen. Horrek lana bera, bakoitzaren familia bizitza eta erreleboa errazten ditu. Guk ikusten genuen familiako ekoizpen hori mugatua zela. Bata gaitxotu edo hilez gero, akabo. Bide batez, esan gabe doa, ustiategi guztiak gizonen izenean zeudela eta lana andreak egiten zutela.

Egia da garai bateko ereduaren erreleboa kosta egiten zela, zuek orain ari zarete horretan.

Ari gara, bai. Badaude hemen Bizkaiganageri heltzeko dozena erdi bat lagun. Gizartea aldatu egin da, hala ere. Gu orain hasi gara ordutegiak mugatzen: batzuek goizean egiten dute lan eta besteek arratsaldean. Ez guk egiten genuen moduan, lanaldi erdia egunero: 12 ordu (kar-kar-kar). Hemen ibili izan diren gazte askok esan digute, proiektuaren ardura eraman beharra larregi dela.

Zuentzat ere astuna izan da proiektuaren ardura?

Guretzat ez. Egia da lan asko egin dugula, baina ez diogu sistemak esaten zigunari jarraitu. Gure lana eta gure bizitza geuk gidatu ditugu. Jende asko ezagutu



dugu 100 edo 200 behi jarri zituztenak eta orain jubilatzenko deseatzten daude. Desilusioz bizi dute nekazaritza eta guk ilusioa mantendu egin dugu.

Nekazarien sindikatuan ere inplikaturik egon zarete.

Gu ez gara izan iluminatu batzuk! Guk sindikatuarekin hartu emana izan dugu eta sindikatuan egon diren prozesuak bizi izan ditugu. Sortu zirenean eredu bakarra zegoen eta litroko berdina ordaintzen zitzaion esne litroa 1.000 litro zein 10 ekoizten zituenari. Sistema kapitalistak bere erara moldatu zuen dena, eta litro gehiago ekoizten zuenari gehiago ordaintzen hasi zen. Zer nahi zuten? Bada, 10.000 litro esne biltzeko 100 baserritara joan beharrean hamarrera bakarrik joatea. Eta baserri txikiak ito egin dituzte ustategi handien mesedetan. Gure artean ere debateak egon ziren. Sindikatuek era-

baki egin behar izan zuten zein eredu babestuko zuten. EHNEko konfederazioan, esate baterako, eztabaida saihestu egiten zen. Guk ez genuen ulertzen eredu biak defendatzea, eta azkenean, Bizkaiko EHNE konfederaziotik atera zen. Dena ezin da defendatu. Gipuzkoara edo Nafarroara bazoaz, ezkerreko zein eskuineko dauden sindikatuek gauza bera defendatzen dute: nekazaritza intentsiboa. Ez diot zentzurik ikusten.

Zuk uste duzu ezkerreko, agintera heldu denean, ez duela jakin zer egin nekazaritzarekin?

Ideologiaz ezkerrekoak garelako pentsatzen dugu, baina egunerokotasunean... Gipuzkoako ENBAK eta EHNEk nekazaritza eredu bera defendatzeak asko esa-



Nire ustez nekazaritza mota bi daude: logikoa eta logikarik ez daukana. Guk, asko jakin gabe, logikari eutsi genion"

ten du. Bere garaian eztabaidatu egin genuen ea ezkerrekoak ginenok beste sindikatu bat sortu behar ote genuen, baina Bizkaiko EHNEk defendatzen du nik defendatu nahi dudana. Ez dut besterik behar. Hala ere, EHNEren konfederazioa apurtu zenean Etxalde mugimendua sortu genuen. Hor gaude EHNE Bizkaia, ELB eta norbanako baserritar talde bat.

Gaurko egoera ikusita, zer falta zaigu nekazaritza eredu guztiz aldatzeko? Administrazioak apustua egin behar du eredu iraunkorraren alde, orain arte eredu intentsiboaren alde egin duen moduan. Lurrak erraztu behar zaizkie gazteei eta inbertitu behar duenari lagundu egin behar zaio.



www.bertsozale.eus

Finalurrekoak 2. asteburua

ETXAURI Urriak 12 larunbata. Udaletxean, 19:00etan.

ARGAKO BIXIGUAK - MUTILATUAK




IRUNBERRI. Urriak 12 larunbata. Larrainenean, 19:00etan.

MANTELEKO SOBRAK - BAZTANZOPAK




TUTERA Urriak 12 larunbata. Beterrin, 19:00etan.

HOR GU! - EZKRASHAK




Antolatzailea: 

Laguntzailea: 

bardoak
2024
Nafarroako Taldeko Bertsolari Txapelketa
Irailaren 13tik urriaren 26ra

Lurra eskuratzeaz ari zarela, jabetzarekin ez daukagu arazo bat?

Bai, lurra ez dugu lanerako tresnatzat hartzen. Egon da jendea nahiago izan duena pinua edo eukaliptoia sartu lurra inori utzi baino. Beste batzuek, ordea, ez dute jakin lurrarekin zer egin. EHNEK lur bankua osatzeko ekimena bultzatu zen, baina administrazioa berme izanda. Azkenean, lurra ez badaukazu bermatuta epe luzerako, ezin duzu inbertsiorik egin. Lurra izate hutsagatik ere ematen dira dirulaguntzak, eta jende batek horrekin osatzen du soldata. Bada, beste modu batera konpentsatu beharko dira jubilatuzio eskasak lur horiek lanerako erabil daitezen.

Salmenta zuzenaren kasuan, azokak, hemen inguruan behintzat [Busturialdean], gainbehera doaz. Zer gertatu da?

Guk ikusi genuen lehenengo aldaketa saltoki handiekin etorri zen. Lehen egunero egiten ziren erosketak eta guk egunero saltzen genuen esnea, baina pasteurizatuak eta uperizatuak hasi zirenean, jendea hilabete osorako erosten hasi zen. Gero Europako legeak ekarri zituen gaingabetuak, erdi-gaingabetuak... eta ez genuen egunero ekoizten genuen esne guztia saltzen. Aukera bi genituen: edo industriari saldu edo dibertsifikatu. Gazta egiten hasi ginen. Hasieran freskoa bakarrik eta honezkerro, hainbat gazta klase. Gazta egin ahala, gazra geneukan, eta hura erabiltzeko txerriak loditzen hasi ginen. Lehenengo geuretzat, bazkideontzat, eta gaur egun saldu egiten ditugu txorizoak. Gauza batek ekarri digu bestea, beti kate logiko batean.

Benetan jubilatuko zara, Txiplas?

Nik badakit ez naizela hemen derrigorra. Ni joaten naizenean Bizkaiganeke jarraitu egingo du, eta hala behar du. Laguntzen

jarraitzen dut eta dakidana transmititzen saiatzen naiz. Hau ez da fabrika bat: "Banoa eta agur".

Zuretzat Bizkaigane lana baino gehiago izan da.

Nire bizitza-proiektuaren zutabe garrantzitsua izan da Bizkaigane. Guk nahi izan dugun nekazaritza egiteko bidea egin dugu, sistemak inposatutako nekazaritza alde egin dugu eta ekoizleen arteko zein erosle eta ekoizleen arteko sareak eraiki ditugu.

Beste sare batzuk ere eraiki dituzu. Jon Lopategi eta gure belaunaldiaren artean, zuena izan zen Gernika-Lumoko lehenengo bertso eskola.

Niri bertsoa gustatu egin zait beti, eta entzuna nuen Jon Lopategik bertso-eskola sortu nahi zuela Gernikan. Orduan bertso eskoletara helduak joaten ginen, ez umeak. Sasoi horretan AEK-ko gau eskolara hasi ginen Saskel eta biok, kooperatiba sortu genuenak. Behin Errigoitiko Potinen tabernan geundela etorri zen Lopategi eta AEKn ibiltzen zen batek esan zion bazegoela Errigoitin bertsoan egiten zuen mutil bat, eta Lopategik esan zidan neure moduko batzuk bilatzen banituen eskola martxan jarriko zuela. Nik batu nuen mendiko ganadua! Arriolatarak [Alex, Damian eta Josu Arriola], [Jose Luis] Obieta, Damian [Erdaide] Okanako, Javier Bidaburu, Txirri Ereñokoa... Foruko San Kristobalen egin genuen estreinako saioa.

Bizkaigane izan da zure bizitza eta bertsoarritza zer izan da?

Bertsoa beti gustatu zait. Errima, kolpea... Ez dakit nondik, baina barruan izan dut beti. Bertso eskolan itzel pasatzen genuen, gero plazara salto egin genuen, txapelketara... beti ibili naiz gustura.

Aire zabalean lan, plazan bertsoan...

baina itzaletan ere egon behar izan duzu urte batzuetan.

Hala da! Abertzaletasuna etxetik jaso genuen, sinisten dut Euskal herrian, eta hor ere egon behar zela pentsatzen nuen. Kartzela tokatu zitzaidan. Dena den, zorte txarraren barruan zorte ona izan dut nik: nirekin sartutako batzuek hogeita piku urte egin dituzte barruan eta nik bost eta erdi. Kartzelako garaian ere lagundu egin zidaten bertsoek. Egoera gaitz batean bertso edo pentsamendu zelebre bat izateak indarra ematen du.

Auzitegi Nazionalean ere egin nuen bertsoan! Rosi Aranaren epaiketara eraman ninduten lekuko, eta abokatuari galdetu nion ea nik esango nuenak ezer aldatuko zuen. Badakizu bakeroen pelikuletan nola esaten zuten? "Epaiketa justu bat izango duzu eta egunsentian urkatuko zaitugu". Auzitegi Nazionalean ere antzera: epaitu orduko sententzia emana izaten da. Orduan pentsatu nuen bertsoan erantzutea, baina ez erantzun bakarrik. Bertsoak kritikarako ere balio behar du, eta Arana epaitzen ari zen epaileak pare bat aste lehenago Ynestrillas libre utzi zuen. Hala amaitu nuen bertsoa: "Rosi askatu ta Ynestrillas atxilotu behar zenuke". Zer egin behar nuen, bada? Goizaldean berdin urkatuko gintuzten, baina han nituen epaimahaia, publikoa eta kartzelako gaia.

Inoiz damutu zara 1980ko hamarkada hasieran gizon askok egin zuten moduan fabrikara joan eta bizitza arruntagoa eraman ez izanaz?

Ez, eta esango nuke Saskela ere ezetz. Egin dugunarekin konbentzitututa egon gara, eta ez naiz sekula damutu. Ez dut uste berriro jaioko naizenik, baina egingo nuke berriz ere apustu hau. Akatsak egin ditugu, baina bai aziertuak ere. Berriz hasita ez genituzke akats berdinak egingo, baina beste batzuk egingo genituzke. ●

Bodegas Lezaun
ASADOR - JATETXEA

BISITAK GIDATUAK MAHASTIETARA •
BISITAK GIDATUAK UPETEGIRA •
ARDO-DASTATZEAK •
BAZKARIAK ETA AFARIAK •
ARDOEN ZUZENENKO SALMENTA •

📍 LAKAR -DEIERRI- (NAFARROA) ☎ UPEGIA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM ✉ INFO@LEZAUN.COM



Tximinoa, salbaia eta elbarritua



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Tristezia ez, ondokoa. Eta etsipen handia. Aurten bi sorkuntza erditu ditugu ("Lurrez Estali" eta "Bidasoa Mintzatuko Balitz"), arrakasta handia bildu dugu eta, hala ere, sentimendu garrantz batek tinkatzen dit zintzurra.

30 bat urte daramazkit antzerkian lanean, hots: idazten, antzezten, zuzentzen, erratza pasatzen, txostenak egiten, bilkurak, prentsaurrekoak, gaupasak, komunak garbitzen, eskailerak igo-tzen, gidatzen, karga-deskarga, fokuak, kableak eta e-mezuak... Eta gauza bat behintzat ikasi dut bidean: euskal kultura ez da gai bat, iragarki bat da. Excel pantailan betetzear dagoen laukitxo bat. Zereginen zerrendan azken lerroan kokatzen den zera bat. Euskal kultur arloan bizi den prekaritatea, ezintasuna eta etsaitasun permanentea (askotan galdekatuak, gutxietsiak edo irainduak gara euskaraz aritzeagatik) ez da gai bat. Euskal artea euskal hiztunen arnagune bakarra da, baina arnasa ez da gai bat.

Tximinoa naiz, imitazioz ikasten dut, eta nire sentimenduak, emozioak eta hausnarketak adierazteko gaitasuna ditudan imitazio aukerei zuzenki lotua da. Lehen musua emateko, zineman ikusitako musuak eskarniatzen saiatu naiz. Nire amatxi zendu zenean, edo laguna ospitalean betiko agurtu behar izan nuenean, irakurritako liburuek lagundu ninduten nire sentimenduak ulertzen eta argitzen. Nire haurren lehen urratsen poza partekatzen ikasi dut. Kulturala

Aurrekontu katastrofikoak eskaintzen dira euskal kulturarentzat, euskal artisten gehiengo zabala prekaritate eta segurtasun eskas handian bizi da, eta orduan zer? Lepoan hartu eta segi aurrera?

da. Horra euskal artearen funtzioa eta betebeharra: hizkuntza aberastea, elikatzea, emozioak komunitatean partekatzea, eta gizatasuna askatasunez bizitzeko aukera bihurtzea. Antzerkian, une soil batez, komunitate baten parte naiz, euskaraz existitzen naiz pentsatu gabe euskaraz bizi naizenik. Herriaren baitan sentitzen, pentsatzen eta aurrera egiten dut.

Horrek ez al du babes minimo bat merezi? Horrek ez al du baliorik? Maila guztietan aurrekontu katastrofikoak eskaintzen dira euskal kulturarentzat, euskal artisten gehiengo zabala prekaritate eta segurtasun eskas handian bizi da, eta orduan zer? Lepoan hartu eta

segi aurrera? Hau da gure herriari eskaintzen zaion plan estrategikoa? Euskal kulturak bazterreko sari banaketetan lehiatzen du, bazterreko aurrekontuekin, bazterreko espazioetan. Alfonbra gorria zapaltzekotan, bikoiztua edo hizkuntza menderatzailean izan behar da. Salbaia, hizkuntza zibilizatuan men egiten du beti.


Sentimenduak eta pentsaera lotzeko zailtasuna, gaur egungo euskaldungoaren gaixotasun kronikoa bilakatzen ari da: "alexitimia". Laburki erranda: elbarritu mentalak gara. Des-euskalduntze prozesua hor errotzen da, eduki emozional eta komunitarioen gehiengo erdaraz hedatzen da. Hori politika publiko baten ondorio zuzena da. Gure haurren hizkuntza eskubideak bermatzeko, epaitegien aurrean edo prentsaurrekoan egiten diren adierazpenek ez dute eragin handirik. Aurrekontuek bai. Babes politikoak bai. Egitasmo estrategikoez bai. Baina kulturaz mintzo diren diskurtso antzuak entzuterakoan, lelo bat heldu zait burura: "Txosten gutxiago eta liburu gehiago". Hori izango da gure funtsezko iraultza politikoa.

Hizkuntza eta kultura beti izan dira herriaren eta askatasunaren bihotza; eta beste alde batera begiratuta, *baskismoan* erori gara. Abertzaletasuna hil da agian? Ez dakit. Batzuetan hala uste dut. Alexitimia eta txostenen kulturak *baskismoa* lehenetsi du eta abertzaletasuna kolonialismoaren baratzean ehortzi. ●

Gaztelera/espainola



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Jokabide politikoan ideologiak duen garrantziaren jakitun, arreta berezia jarri behar genioke euskaldunok geure ideologiaren gaiari, kokaleku ideologiko zehatz baten markoan erabakitzen delako beti zer egin, zer ez, nola, norekin, noren kontra, eta abar. Jokoan duguna hain funtsezkoa izanik, eta gure artean menderatzaileen aldeko ideologia barreiatzeko ezarria dagoen makina mediatico guztia ezagututa, oso kontuz ibili beharko genuke, gu tontotzea eta itsutzea delako beren arrakastaren baldintzetako bat, ez ahaztu.

Euskaldunon ideologiaren oinarrian, pairatzen dugun gatazkaren irakurketa egokiak egon behar luke, eta horretan, noski, funtsezko funtzioa dauka terminologia ongi erabiltzeak. Gertatzen zaiguna nola izendatzen dugun gure mundu ikuskeraren sintoma da, baina horrez gain, mundu ikuskera horren konfigurazioan berean eragiten du, zentzu zirkularrean.

Begira zer ezberdina den, adibidez, gurea *estaturik gabeko nazioa* dela esatea, edo geure burua *estatu okupatu* baten gisa aurkeztea. Lehenak, Espainia eta Frantzia barneko arazo gisa planteatzen du afera, eta nahia edo pretentsioaren mailan kokatzen du. Bigarrenak, ordea,

nazioarte mailako kualifikazioa ematen dio auziari, desjabetua izan den baina jabetza errekuperatu nahi duenaren tokian jarriz Euskal Herria. A zer ezberdina, ezta?

Ildo beretik, ez da gauza bera 1936koari *Gerra Zibila* deitzea, edo guretzat izan zen *konkista-gerra* gisa izendatzea. Eta aldea dago, era berean, nazionalista/ez-nazionalista dikotomia faltsua onartzearen, eta beharko lukeen espainol-frantses/euskaldun-aren artean. Zer esanik ez, ezin da konparatu hemen indarrean dugun erregimenari *demokrazia* deitzea –defizitariora, baina demokrazia–, moztututako *inperialismoa* esatearekin.

Oraingoan, hain hedatuta dagoen *gaztelania* hitzaren erabilerari heldu nahi nioke, gure kokaleku ideologiko okerraren adierazgarri delako, eta hizkuntzaren aferari egoki heltzeko gure argitasuna bereziki eragozten duelako. Espainiako hizkuntzari *espainola* deitu behar zaio, eta ez *gaztelera*, horretarako arrazoiak espainolek berek ematen digute, gainera, beren hizkuntzari *gaztelera* deitzea justifikatzeko darabilten argudiaketarekin berarekin. Espainiar hizkuntza diren guztien artean –euskara, galegoa eta katalana hor sartuta, bistan

denez– ez dela bakar bat besteen gainean hobetsi behar, besteak gutxiestea litzatekeelako. Hau da, *gaztelera* erabiltzen dute, euskarari espainol hizkuntza izatearen ohorea emateagatik. Arrazoi gehiago behar ote duzue?

Gaztelera, noski, inperioaren lurraldeko barne kontsumorako baino erabiltzen ez duten terminoa da, kanpora begira *espainol* izendatzen dutelako beti, logikoa den bezala. Hiztegietan oso ongi ikusten da hori, *gaztelera-euskara* jartzen dute, edo *gaztelera-katalana*, baina sekula ez *gaztelera-ingelesa*, *espainol-ingelesa* baidzik. *Espainol-euskara* esatea, euskara espainola ez dela onartzea bezala litzateke, eta hori ez zaie komeni, gure mendekotasuna bilatzen duen ideologia horren kontra bailihoake.

Hemengo abertzaleek *gaztelera* hitza erabili nahi izatearen arrazoiak ulertu egin daitezke, alde humano batetik bederen, ulergarria delako inperio baten hizkuntzan mintzo zarela onartu nahi ez izatea. *Gaztelera* hitzarekin kontua goxatu egiten da, gure mendeko-kolonizatu izaera minimizatu egiten delako, eta kamuflatu. Baina, ez al genuke, hain zuzen ere horregatik, ohitura hori behingoz aldatu behar? ●



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Pakito Arriaran eta 'Korta'

Ez dakit elkar ezagutu zuten Lapurdin. Enrique Gómez *Korta* 1979ko ekainaren 25ean hil zuen *Batallón Vasco Español*-ek Baionan. Pakito Arriaranek 1978ko azaroan ihes egin zuen Iparraldera eta urtebete eman zuen bertan, atentatuak saihestu aldera Venezuelara alde egin arte.

Niri iraileko azken asteburuan nahastu zitzaizkidan biak. Ostiralean, *Korta*, *askatasun haizea* (Julen Diaz de Argote, Egiari Zor eta Hala Bedi) dokumentala ikusi genuen Errekaleorren. *Korta* Leoneitik etorri zen Gasteizera ume kozkorretan, 1970eko hamarkadan, eta Gasteizen euskara ikasi zuen (gertukoek azpimarratzen dute oso ondo ikasi zuela) eta ETako militante egin zen. Bera hil eta gutxira Kristina Larrañaga bikotekide arrasatearra bien seme Aratzez erditu zen.

Aratzek bideo-mezu eder bat bidali zuen emanaldirako, Lapurdiko euskara ederrean mintzo da. Hiru belaunaldi: aiti-ta-amama Leongoak, *Korta* gasteiztarra, Aratz lapurtarra.

Larunbatean, Pakito Arriaran El Salvadorren hil zuteneko 40. urteurren ekitaldia egin zen Arrasaten, bere jaioterrian. Hiru emakume aritu ziren solasean. Lehenik, Miren Odriozola, Pakoren bikotekidea eta El Salvadorko gerrillan ibilia –Miren Odriozolaren berri izateko, *Laura esaten zioten* (Leire Ibarguren, Txalaparta)–. Mi-

renek kontatu zituen bien bidaia nolakoa izan zen, gerrillako ibilerak eta orduko egoera. Ondoren, Askapenako brigadista joan zen Bea Ilardiak kontatu zuen nola 2009an brigadarekin Arriaranen gaineko bideo bat filmatzera joan zirenean Miren ezagutu zuten. Nola Las Vueltas herrixkako auzokideek Juancito (Pakitoren gerrizena El Salvadorren) maite zuten. Nola igo ziren bere hilobira herritar pila bat. Nola Mirenek ikurrina ajatuaren ordez berri bat jarri zuen, eta nola aldean zeraman Euskal Herriko lurra nahastu zuen El Salvadorrekoarekin. Azkenik, Aloña, gerrillan ibilitako beste euskaldun bat, mintzatu zen gaur egungo El Salvadorko egoeraz: Nayib Bukele presidentea, pandillen kontrako gerra aitzakia hartuta, El Salvador bi urte eta hiru hilabete salbuespen egotzaren izan du (epaiketarik gabeko 75.000 atxilotu egon dira), eta armadan inbertitu eta inbertitu ari da, garapen ekonomikoa, hezkuntza eta osasungintzaren kaltetan. Aloñak, FMLNren porrota azaltzeko, esan zuen herri mugimendutik gehiegi urrundu zela eta ordezkaritzako demokrazia gezurra dela.

Kortak mundua borrokatzeko bidea topatu zuen Gasteizen euskalduntzen. Pakitok munduan euskalduna izateko modua topatu zuen El Salvadorko borrokan. Baionan ez dakit, baina nire buru barruko karrketan elkar ezagutu dute. ●

Desfokuratze informatiboa



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Ikasturte hasieran hauteskundeak izan behar ziren EHUko agenda informatiboko gertaera nagusia. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, gainera, hitzordu bikoitza dugu, gure zentroko batzarra ere urrian hautatuko baita. Aukera zabaldu da kudeaketa-eredu ezberdinak ezagutu eta horien artean erabakitzeke. Eztabaida hori, gainera, ematen ari da ikerlari eta irakasle gazte kolektibo batek bultzatuta, beren esku-bideen aldeko mobilizazio-urte baten ondoren eta, besteak beste, belaunaldiarteko errelebo gertatzen ari denean.

Fokua horretan jarri ordez, batzuek desitxuratutako irudi batean jarri dute

fokua berriz ere, unibertsitate publikoaren interesaturiko irudi gatazkatsua nabarmenduta. Aurreko egunetan, unibertsitateko komunitatetik irakasle baten jarrera homofobo, xenofobo, matxista, faxista... salatzen zituzten ahotsak jaso beharrean, ikasle-talde batek horren aurka deituriko protestan emandako gatazka zabaldu zuten eta gogoeta desbideratu.

Ohituta egon behar banu ere, haserretu ninduen zabaldutako mezuak. Erantzunean –gorroto-diskurtsoak arbuia dituzte–, ordea, ohartu naiz dagoeneko euskal gizarteak ez duela amua hain erraz irensten. ●

Sua-sua



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA ETA
SORTZAILEA

Uwa, kamsá, tukuná, uitoto, tikuna, embera, nasa-yuwe, nukak, sikuaní, siano, macuna, yuruti, kichwa, achagua, bora, ettenaka. Horiek dira Kolonbian hitz egiten diren hizkuntzetako batzuk. Tamalez, Kolonbian bizi nintzenean, Cundinamarca, nik ez nuen gure hizkuntza ikasteko aukerarik izan, chibcha, kolonialismoak errotik erauzi zigun eta.

Nire bidean euskara aurkitu nuen, hizkuntzak limurtu egin ninduen eta berarekiko sortu zitzaidan loturari ezin izan nion kontra egin. Leize-zuloetan jaio zen hizkuntza hark urtu egin ninduen eta piztu egin zidan Kolonbian kolonizazioak galarazi zigun mundu-ikuskerara. Horri esker galduta sentitzea iri utzi nion. Baretu egin nintzen, argi zirrikitua ikusi nuen eta indarrez eta gogor heldu nion euskarari nire erroak ez zimeltzeko. Sorterria uzten denean, sustraiak han izanda ere, hutsaltzen hasten dira hitzak eta itotzen ahotsa. Kasualitatez edo kausalitatez, euskaraz *su* hitza ikasteak arbasoen hizkuntzarekiko lotura berrezarri zidan. Sua. Chibchaz *sua* eguzkia da eta. Hara non! Hemengo hizkuntzak bete egin dit Tawatinsuyuko arbasoekin bat egiteko sentitzen nuen

Ez nau lotsatzen esateak euskararen bidez zubi “espiritual” sinkretikoa eratu dudala Kolonbian utzi nuen unibertsoa berreskuratzeko eta inguratzen nauen hemengoa argitzeko

hutsunea. Nork esango zidan, ai ene! Euskararekin eraiki dudana harremana ederra eta aberatsa da berez, komunikatzeko, elkarbizitzarako eta sozializatzeko. Baina haratago doa, euskararekin eraiki dudana harremanak lurrera ainguratzen nau, uretan jariotasuna ematen dit, sutan arima purifikatzen dit eta haizetan hegan eramaten nau gure herriko mendietan barna. Hasieran, etorri berriaren bakardadean eta isiltasunean, traidore sentitzen nintzen, kontraesanek barruak mugitzen zizkidaten. Eta

gure kultura zer? Gure nortasuna zer? Asimilazio prozesu baten objektu sentitzen nintzen, hemengo kultura nire mamia urtzen ari zela pentsatzen nuen, nire nortasuna lausotzen. Ezta hurrik eman ere! Hain zuzen ere, euskara ikasteak Kolonbiako indigenen kulturarekin lotura berezia sortu didala esango nuke. Ez nau lotsatzen esateak euskararen bidez zubi “espiritual” sinkretikoa eratu dudala Kolonbian utzi nuen unibertsoa berreskuratzeko eta inguratzen nauen hemengoa argitzeko.

Lurrazpiko mineral eta materialen antzekotasunagatik, Kolonbiako kogui indigenek uste dute haien inguruko kobazuloak eta Euskal Herriko batzuk (Zugarramurdikoak, Pozalaguakoak, Arpeakoa eta Urdazubikoak) sare energetiko emozional kuantiko baten bidez konektatuta daudela eta sare horrek kosmosarekin eta kontzientzia unibertsalarekin lotzen gaituela. Nik ez dakit hori egia den. Ezin da frogatu. Dakidan gauza bakarra da euskararekin dudana lotura logikaren mugetatik haratago doala eta izpiritua eta arima elikatzen dizkidala. Harritzekoa bada ere, harreman filosofikoa eta ia-ia mistikoa dela esan nezake. ●

FINAL-LAURDENAK

EIBAR

📅 Urriak 19, larunbata, 17:00
📍 Koliseoa Antzokia

ERREENTERIA

📅 Urriak 20, igandea, 17:00
📍 Lekuona Fabrika

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus



“

**Kontatzen ez bazara,
kontatzen zaituzte.**

Katixa Agirre

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez **Jakinkide**

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin _____ dabilen
pentsamendua

IRUÑEKO LABA ELKARTEA

Euskaraz egin zuen
eztanda erupzioak

Kafetegi, topaleku, kulturgune, denda eta askoz gehiago, betiere, euskara ardatz. Orain dela bi urte eta erdi zabaldu zituen ateak Iruñeko Labak. Aurretik dator proiektua ordea. Atzera begirako errepassoa egin dugu kideekin: erronkak eta arazoak. Etorkizunerako aukerak ere mahai gainean jarri ditugu, proiektua egunetik egunera hazten ari baita.

 IÑIGO SATRUSTEGI  JOSU SANTESTEBAN

Hiri txikia izanagatik ere, errealitate eta jatorri ezberdineko jendeak biltzen ditu Iruñeak. Alde Zaharrean bertan, ikusten ditugu izandako gaztetxeen arrastoak, kalean bizi direnak, herri mugimenduetako kartelak, pisu turistikoak, taberna *jurruak*, gentrifikazioaren lehen izpi batzuk... Kale gutxik banatzen dute ziurrenik terraza handienak dituen tabernen plaza: Gazteluko plaza. Zuhaitzez beterik izan zen aspaldi eta aparkaleku baten eraikuntzarako eraitsi zituzten. Egun, askoren begietan *Pamplona* bakarrik esaten dutenentzat ematen duen porlanezko orubea baino ez da. Bertan da Ernest Hemingway idazlea mozkortzen ikusi zuen Café Iruña, bai eta ostatu hartzen zueneko luzuzko La Perla hotela. Justu hantxe, hormaz horma dago Laba, orain gutxira arte portxearen azpian, ia ikusezin. Terraza eskuratu zuenetik, ordea, euskarari bere lekutxoak egiten. Hantxe elkartu gara, hain justu, proiektuaren orain arteko

ibilbideaz, eta etortzeko den ikasturteaz mintzatzeko.

Iraileko lehen astea delako agian, edo eguraldia ere kaskartxo dagoelako, baina giro goibelean esan dezakegu jada udaren hondarretan gaudela. Tanta batzuk mehatxuka, eta, tantaka ere, iritsi gara hitzordua egin dugun lau lagunok. Laban, infusioaren epelean irakurtzen dabil baten bat, prentsa kontsultatzen besteren bat. Bi ezagunek topo egin dute bertan, eta zer hartuko erabakitzen ari dira. Elkarriketaren aitzakian bildu gara, baina izan gintezke beste erabiltzaile arrunt batzuk ere bai. Klik, grabatzen.

BIZILAGUN BATEN LOKAL HUTSA

Pandemiako sasoiatarara egin dugu atzera. Mundua lurrikara baten gisara irauli zuten urte haietara. Itxialdian erokeriak egiten hasi ginenekora eta elkarri aurpegia ezin ikusirik egon ginen hilabeteetara, musukoen atzean gorderik. Lagunartek, familiak, lankideak, berriz, urrun

sentitzen genituen garai haietan, metro eta erdi eskasean. Kulturgintzarako ere hilabete beltzak izan ziren ezbairik gabe. Pandemia lurrikara bat izan zen. Baina kaosa zirudien horren guztiaren erdian, txinparta bat piztu zen plaka tektonikoen artean. Orduan hasi zen gaur egun ezagutzen dugun Labaren sua pizten, Iruñeko euskaldunentzako topaleku eta kulturgintzarako apustu baten hasiera. Urruntzeen garaian, kolektiboan eraikitzen hasia. Arnasgunea hiri buruzagiaren saloian.

Iruñeko bizilagun batek lokal huts bat zeukan plazan, aspaldi apustu etxe izandakoa. Bizilagun hura euskaltzalea zen, eta borondatez euskalgintzarako proiektu bat egin zezaten espazioa emateko prest azaldu zen 2020ko udazkenean. Laster hasi ziren kulturaren alorreko zenbait eragile prozesu bat artikulatzen. Denok ezagutzen dugu elkar hemen, eta bileretarako gonbidapen mailek eta ahoz ahokoak egin zuten bere magia. Lagun baten "eruz" eta "engainatuta" iritsi zen



Unai Rodriguez bilera haietara. Hasieran 30-40 bat lagun izango zirela kontatu du, denak ere maila pertsonalean. Rodriguezen arabera, gisa honetako proiektuetan ohikoa izaten da norabide jakin bat, Labaren kasua ezberdina izan zen ordea: "Normalean ideia bat daukazu eta gero non eta nola gauzatu pentsatu behar duzu. Gure kasuan kontrakoa izan zen: espazioa bagenuen, baina ideiarik ez zer egin horrekin". Eta, hala, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroaren eta Txantreako Biltoki elkartearen artean biltzen hasi ziren, Arkupetik izeneko prozesu eraikitzaileari forma eman nahian.

Talde batek egoitzaren diseinuaren ardura hartu zuen. Beste kide batzuek alderdi burokratikoagoari heldu zioten, elkartearen izaera juridikoa definitzeko. Baldintza nagusia, hala ere, argi izan zuten hasiera-hasieratik: euskararen aldeko eta euskara hutseko eskaintza

egingo zuten, hizkuntzari beste espazio bat irekitzeko asmoz. Denda, kafeategia, kulturgunea, sormenerako espazioa, kafe antzokia. Ideia horiek guztiak mahaigaineratu zituzten. Aurrera egin ahala, dendarena alboratu zuten hasiera batean. Kafe antzokiarena deigarria zen arren, bizilagunengan pentsatuta, ez zen egokiena. Azkenerako, guztien arteko zerbait suertatu zen, eta, are, irekia dago proposamenak jasotzera. "Euskaraz den edozer egin daiteke hemen", esan du Ane Zelaia ostatuko langileak. Paperetan, ordea, kafetegi lizentzia dauka guneak, eta horrek muga batzuk ezartzen ditu Labak egiten duen jarduerari zuzen eragiten

Ane Zelaia, Ibone Labiano eta Unai Rodriguez Labaren egoitzan. Goiko argazkian Iñigo Satrustegi kazetariarekin daude hirurak.

diotenak: ezin dute alkoholik saldu, adibidez, eta bezeroak nabarmen murrizten ditu horrek. Bezeroak nola, diru-sarrerak ere bai.

Izaera ez definitu horretatik datorkio izena guneari: Laba. "Ez genekien zer sortzen ari ginen, proiektua bera laborategi bat zen", azaldu du Rodriguezek. Ingeleseztan eta laburduretan Lab erabili ohi da, eta, hala, esperimentatzeko toki baten irudikapena izan zitekeela pentsatu zuten. Jokoa ematen zuen, halaber, eta hitz jokoak bereziki maite ditugu Euskal Herrian, sumendietatik ateratzen den labarekin ere jolasteko. Laba da zerbait malgua, mugitu egiten da, bizirik dagoen zerbait da, eta gori-gori dagoena. Sumendiari beste hedadura bat ematen dio.

ALDARRIA ALDE ZAHARREKO KALEETAN

Urtebete iraun zuen gogoeta eta eratzeko faseak, harik eta 2021eko urriaren 9an

Seisinoa egin zuten arte. Egun hartan hiri buruzagiko kaleak festa giroan zeharkatu zituzten, ordura arteko lanaren ospakizun modukoa izan zela azaldu dute kideek eta eskuartearen zuten proiektuaren erakusleihen eta aurkezpen modura ere baliatu zuten. Ikusmira handia zen Iruñeko euskaltzaleen artean, proiektu bat zebilen martxan, zer eta Gazteluko plazan. Horientzako *free tour*-ak antolatu zituzten, artean lokala prest ez zegoenean. Seisinoaren ondoko hilabeteetan ekin zioten auzolanean espazioaren prestakuntzari. 2022aren hasieran aurkeztu zuten, azkenik, hainbeste mimorekin prestatzen ibili ziren euskaldunontzako topalekua. Hari horrextatik, askorentzat deigarria izanen da euskararekin duten seta. Euskaratik, euskaraz, euskararentzat, eta beste kasu marka asko. Tamalez, gaur egun ere, aldarrikapen hori egiten segitzea badelako bizirauteko modu bat. Proiektua osatzen dutenentzat, sinbolikoa da elebakerren inguruetara ere heltzea, eta erdigunetik –adiera zabalean– eragitea. Labak paisaia linguistikoa zertxobait aldatzen du eta ikusgarritasuna ematen dio beste Iruñea bat ezagutu ere egiten ez duten hiritarrei eta bisitariei.

Xedeak xede, ezin ukatu ibilbide labur baina oparo honetan Laba erreferentziatzeko tokia bihurtu dela kulturgingintzan eta euskalgintzan behintzat. Ez da gutxi. Halakoetan, normala izaten da hasierako kideetako batzuk joatea. Prozesu naturaltzat hartu dute kideek. Rodriguezek azaldu du hasieran oso adin tarte zabaleko jendea zegoela proiektuan, baina aldatuz joan dela: "Gaur egun, talde anitza izaten segitzen dugu, baina gaztetu egin da". Rodriguezen ustez, hala izan bada, izan da jende helduenak proiektuari bultzada eman nahi ziolako, eta norantzkoa definituagoa zegoenean gazteei utzi dietelako gidaritza. Ez dira dena bajak izan. Ibone Labiano eta Ane Zelaia dira Labaren trenera beranduago heldu direnetako bi.

Iritsi berritza dauka Zelaiak bere buroa. Labako tabernarietako bat da orain dela hilabete batzuk. Aurretik kanpoan izan da, baina, jakina, proiektua segitu du distantziatik bada ere. Gainera, aitortu du Iruñera lagunekin gerturatzean, Alde Zaharreko espazio jakin batzuk bisitatzeko ohitura izan dutela beti, tartean Laba bera ere bai. Orain, ezinbestean, ia egunero datorrela esan du irri artean.



Kafetegia eta kulturguna da Laba. Ez dute alkohola zerbitzatzeko baimenik. Espazioa mugatua izatea da Labaren ezaugarri berezi bat, "eta intimoagoak diren ekitaldietarako oso aproposa da".

"Euskaraz den edozer egin daiteke hemen"

Ane Zelaia
Ostatuko langilea

Bere aldetik, Labianok kontatu du hedabideen bitartez izan zuela Labaren berri. Zabaldur eta gutxira etorri zen ahizparekin tokia ezagutzera. Azaldu du egun horretan bertan bazkide izarela biak, proposamenarekin maiteminduta, eta euskararen aldeko militantziagatik. Proiektua sendotuta dago orain eta atzera begira Labianok nabarmendu du

apustu-etxe izatetik biltoki eder baterako eraldaketa "izugarria" dela. Aurreko ikasturtetik programazioaren taldean ere parte hartzen du, bera ere beste lagun batek "engainatuta".

Labako kide, edo Labazkide, izateko modu asko daude. Denak ere modu boluntarioan. Horrextatik lana geruzetan banatzen dutela azaldu dute. Guztiaren erdian ganbara dago, sumendietan magma gordetzen dutenak bezalakoak. Ganbarakoek barrura begirako lanak egiten dituzte batez ere: koordinazioa, dirulaguntzen kudeaketa, aurrera begirako proiektuak... Lehen tabernako kontuak ere eramaten zituzten. Momentu batetik aurrera, berriz, magmak tximinian gora egiten du, azalerako bidean. Hain zuzen, hori da tximiniako lantaldeen geruzan daudenen ardura: hedabideekin egotea eta sareen kudeaketa komunikaziokoek,

egitaraua lotzea eta gonbidatuekin ego-
tea beste batzuek, eta egoitzaren lantal-
deak espazioa txukun mantentzen du.
Badira beste bazkide batzuk sumenditik
pixka bat aparteago daudenak, baina,
haiek ere badute ardurarik proiektuan.
Guztira, 170 lagun pasatxok osatzen
dute Labaren komunitatea.

LABAZKIDEAK EUSLE

Bazkideen kuotak dira diru iturritako bat. Dirulaguntzak eta tabernatik ateratzen dutena ere hor dago. "Oraindik ere ez da proiektu %100 bideragarria", esan du Rodriguezek. Batzuetan, hala ere, horiekin ez da nahiko izaten, eta egoera ekonomiko estuan izan direla ere onartzen dute: soldatak ordaindu behar dituzte, lokalaren gastuak... Azpimarra jarri dute, era berean, ahalegintzen direla Labak egiten duen eskaintza duina izan dadin, Gazteluko plazan bertan, beste ostatu batzuek egiten dutenaren aldean. Labianok azaldu du, gainera, saiatzen direla kultur eskaintza "mundu guztiarentzako" egiten, eta hargatik direla emanaldiak doakoak edo ahalik eta merkeen. Artistei, halaber, beren lanagatik ongi pagatzen ahalegintzen dira. Gastuak, beraz, sarreraren balantzan jarriz gero, ez dira batere orekatuak.

Egoera hori apur bat arintzen lagundu nahi duenarentzat aukera dago bazkidezeko. *Labazkide*tu zaitez!, dio leloak. Bazkideen garrantziaz mintzatu dira kideak: "Hau bizirik mantentzen eta aurrera ateratzen laguntzen digute". Kasu honetan ez dago saririk, adierazi dute. Ez da elkarte gastronomikoe-tan bezala, espazioa erabiltzeko aukera ematen dutenak. Hemen ekarpena eus-kalgintzari egiten zaio, Labaren bitartez, eta trukean, proiektuaren erabakietan parte hartzeko aukera dute. Urtero 120 euroko ekarpena egin behar dute, baina, errenta aitortuenean zati handi bat jasotzen dute bueltan. "Ez da arrazoi ekonomikoa bakarrik, bada modu bat hau zure proiektua dela sentitzeko, beste modu batean parte hartzeko. Zatoz eta egin ezazu zure ekarpena".

AUZOAREKIN ELKARLANEAN

Eman dezakeen irudiaren kontra, Laba ez da irla bakan bat itsaso zabalaren erdian. Badira beste zenbait elkarte eta eragile Iruñeari kolorea eta bizia ematen aletxoa jartzen ari direnak. Horien arteko elkarlanari eta aliantzei aitortpena egin diete. Izaera juridikoaren zalantzak argitzeko Geltoki merkatu, kulturagune



Bazkideen kuotak dira diru iturritako bat. Dirulaguntzak eta tabernatik ateratzen dutena ere hor dago

eta taberna solidario eta ekologikoa-
rengana jo zuten. Zaldiko elkarteare-
kin ekimenak partekatzen dituzte, Al-
dezar auzo elkartearen egitarauarekin
bat egiten dute, San Fermin txikirekin,
esaterako. AEK eta IKA euskaltegiekin
harreman estua dute. Are gehiago, inoiz
Labara goizez gerturatzen bazarete, iku-

siko dituzue ikasleak eta irakasleak atse-
denaldian, euskaraz, edo ahaleginetan,
bederen. Orain ikasturtea hasi dela, ari
dira jada handik eta hemendik proposa-
menak jasotzen.

Korear batek euskararen berri izan
zuela kontatzen du Googleko iritzietan.
Askok gosari ederrak aipatzen dituzte,
eta giro atseginagatik bost izar ematen
dizkiote guneari. Baina denetarik iri-
tziak daude, txarrak ere bai, bereziki, es-
pero ez zuten zerbitzua dela eta: eguer-
dian itxita dagoela, terrazarrik ez zegoela
-orain bai-, euskaraz hitz egiten dute-
la... Eguneroko ogia, kontatu du Zelaiak:
"Bi motatako bezeroak daude: Laba eza-
gutzen dutenak, eta Gazteluko plazako
beste lokal bat delako sartzen direnak".
Turistak harritu egiten direla azaldu du,
baina badela Iruñeko bertako jendea
ere, kartelak euskaraz irakurri eta alde
egiten dutenak. Lehen hitzak beti euska-

raz egiten dituzte. Gero, ikusten badute ezin dela, erdaretara jotzen dute. Ulertu eta bere burua ulertarazi nahi duenak hemen badu bere tokia. Pedagogia asko egitea tokatzen zaiela gaineratu du Zelaiak. Izan ere, ostatu forma duen arren, askoz harago doala etengabe azaltzen diete. "Jendeak interes handia erakusten du". Aldi berean, alkoholik ezin zerbitzatzeko beste jende asko atzera botatzen duela adierazi dute.

UDALAREN TEMA, TERRAZA EZ UZTEKO

Terraza gora, eta terraza beheara. Espazioa ireki zutenetik egindako aldarrikapen entzutetsuenetakoa izan da, eta orain urtebete luze eskuratu zutena. Pandemia garaian terrazak izugarri handitzeko aukera izan zuten tabernariak, eta Laba artean sortze bidean baino ez zenez, alboko tabernari eman zizkioten lokalaren pareko metro karratuak. Proiektua ja martxan zenean, Labari zegokion plazatxo zatia berreskuratzen saiatu ziren, baina udalak ez zien baimenik eman. Lehenik, Enrique Mayaren (UPN), eta, gero, Cristina Ibarrolaren (UPN) gidaritzapean zeuden. Orduan, elkarteak auzitegietara jo zuen, arrazoia eman zioten, eta baimena eskuratu zuten. Hala ere, udalak baimena



Oztopoen gaineratik, liburu eta disko aurkezpenak, zikloak, drag showak, pintxadak, umore jaialdiak... denetarik izan dute

gauzatu gabe jarraitu zuen. Azkenerako, Nafarroako Gobernuak egin zuen agindu betearazlea, eta iazko maiatz aldean lortu zuten beren mahai eta aulkiak jartzea. Terrazarik gabe, alboko tabernari guztiz ezkutuan uzten zuen Laba haren toldo eta egiturekin. "Ez genuen ikusgarritasunik batere, ez zuen uzten aukerarik Laba ezagutzen ez zutenentzako", mintzatu da gaiaz Rodriguez. Ikusgarritasuna zuzenki lotuta dago, aldi berean, bezero potentzialak erakartzearrekin, eta, horrenbestez, hein batean bada ere, proiektuaren egoera ekonomikoarekin. Prozesu luzea izan dela esan dute Labakoek, eta onartu dute nekatuta



Proiektuaren hasieran 30-40 lagun ibili ziren. Mota guztietako lanak egitea egokitu zaie egitasmoaren inguruan ibili diren kideei, baita tokia egokitzeko eskulana ere. Gaur egun 170 lagun pasatxok osatzen du Labaren komunitatea.

Momentikoak

Iruindarrok badugu mania hori sanferminetako une goxoei momentiko esateko. San Fermin festetan izan edo ez, Labarekin izan duten oroitzapen on bana eskatu diegu Labaren inguruko azalpenak eman dizkiguten hiru kideei.

Unai Rodriguez: "Batekin geratu beharko banintz, Seismoaren egunarekin izango litzateke. Iruñea hain alai, koloretsu, bizi ikustea pozgarria izan zen. Prozesuan bizitzen ari ginen sentimendua transmititzen jakin genuen. Korrikan kilometroa hartu genuen egunean ere oso momentutxo polita izan zen. San Adrianen 20 bat lagun batzea lortu genuen".

Ibone Labiano: "Nik *Labea* bakarriketa probalekuaren lehenengo saioaren oso oroitzapen ona

daukat. Hori izan zen parte hartzen hasi nintzenez antolatu genuen lehendabiziko ekimena. Berritzailea izan zen. Bestetik, sanferminetan familiarekin entzierroa ikustera etorri ginen goiz batean, polita izan zen".

Ane Zelaia: "Niretzat sanferminetako azken eguna izan zen oso intimoa. Intentsitate handiko jaiak izan ziren, luzeak, eta lan pila bat izan genuen. Azkenengo egunean tabernarietako batzuk eta beste kide batzuk elkartu ginen, lasaiago, eta ez dakit. Agian normalean kideetako batzuk ez ditugulako ikusten, edo Labara gerturatzen direnean gu lanean ari garelako eta ez gaudelako haiekin. Egun hartan oso gustura egon ginen elkarrekin".

ere egon direla gaiarekin. Ibarrola alkate izan zen tarte laburrean, gainera, sanferminetan eta San Fermin txikietan prestatutako egitaraua aurrera ateratzeko debekuek ez zuten lagundu.

Oztopoen gainetik, liburu eta disko aurkezpenak, denetarik zikloak, drag showak, pintxadak, umore jaialdiak... Denetarik izan dute orain arteko ibilbidean. "Formatu txikikoak, hori bai", gehitu du Labianok. Izan ere, espazioak bere mugak ditu. Jakin badakite aukera zenbait uko egin behar diotela neurriak eta aforoa direla eta. Anari, Gorka Urbizu eta beste batzuen emanaldiak gogora ekarri dituzte, izan ere, jendea kanpoan geratu behar izan zen. Baina txikitasunak dakarrenari buelta eman dio Labianok: "Bada Labaren ezaugarri berezi bat, eta intimoagoak diren ekitaldientzat oso aproposa da". Ikasturtea hasita, agenda betetzen hasi dira dozenaka proposamenekin. Tartean, aurretik egindako zikloei segida emango diote: Bert(h)ori, bertso saio amateurrak; Tribialaba, arratsalde pasak; Labea, bakarriketen probalekua; Ongietorriak Iruñera, gazte migratzaileen eta iruinar-



LABA

darren artean hurbiltzeko ekimena... *Ipuingarrria izango da* izeneko jaialdiarekin bat egingo dute eta Komikiaren VI. Aretoaren kariatara beiratea apaindu, eta ekimenen bat antolatu dute gunean. Nahi duenak, izango du zer egin, entzun, probatu eta gozatu beraz.

Apustu-etxearen aztarnarik apenas ikusten da orain arkupean. Hala ere, Labako kideek iragarri dute, bere txikita-

sunetik eta xumetasunetik, euskararen alde eragiten segituko dutela. Gainera, aurreratu dute aldaketa handi bat dutela eskuartean datozen hilabeteetarako, proiektua sendotzen lagunduko duena, zentzu guztietan. Ez dute detaille gehiegirik eman nahi, oraindik ere fintzeko detaileak baitaude, baina ziur daude iruindarrek pozik hartuko dutela albisteak. ●

BABESLEA:

LEZO
EUSKARAGARRI



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

CÁDIZ

Euskal esklabistak metropoli kolonialean

1492ko urriaren 12an ez zen soilik Amerikako jatorrizko herrien genozidioa hasi. Europa munduko potentzia bilakatuko zuen Atlantikoko esklabotzaren negozioari ere bidea zabaldu zitzaion. Sistema kolonial erraldoi hori ezinezko zatekeen Cádiz bezalako metropolirik gabe: Cristobal Colon eta beste konkistatzaile askoren espedizioen abiaburu, esklabo trafikoaren europar zentroa ere izan zen. Eta euskaldunek protagonismo berezia izan zuten horretan.

Cádizen feniziar jainkoen panpina efimero erraldoiak ikusi ahal izan dira asteotan Puertas de Tierran, San Antonio plazan eta beste hainbat tokitan, hiria bere iraganarekin “arro” dagoela aldarrikatzeko. Antzinako Gadir, geroko Gades, gaurko Cádiz, historiaren pasarte arrastuagoen lekuko ere izan da ordea. Esaterako, oroituko al dira Cristobal Colonek 1492ko bere bidaiaren ondoren hainbat espedizio antolatu zituela Cádiztik Amerikara, hango jendeak eta baliabideak xahutzeko asmo osoz?

Askotan, Amerikako jatorrizko herrien genozidioaz hitz egitean Atlantikoaren alde hartan jartzen dugu histo-

 URKO APAOLAZA AVILA



riaren lupa. Urriaren 12an ahoa betetzen zaigu Hispanitatearen Eguna salatzeke, baina begirada deshumanizatailearekin hitz egiten jarraitzen dugu “besteaz”, indigenek eta beltzek osatzen duten alteritateaz. Ez dago borroka antiarrazistarik ez bada ezbaian jartzen iragan kolonialista eta esklabista, diote Gasteizko ContraPunto Dekolonial kolektiboko lagunek. Horretarako, behartuta gaude lupa meridiano batzuk mugitu eta metropolian kokatzera.

Cádizen iragan kolonialistaren mozkorraldia 1717an hasi zen. Urte hartan Gaztelako Koroak erabaki zuen Indietako Kontratazio Etxea hiri hartara eramatea Sevillatik. Amerikako espoliazioaren monopolioa ziurtatzeko Errege Katolikoek XVI. mendean sorturiko erakunde horren bultzadarekin, Cádiz Europako ziudade nagusienetako bat bilakatu zen; itsasoari begira hazitako megalopolia zen sasoi hartan eta dozenaka milaka biztanle biltzen zituen. Baina erraldoitasun horrek bazuen tranpa txiki bat: sei biztanletik bat esklaboa zen.

10.000 ESKLABOREN HIRIA

Arturo Morgado historia katedradunak egindako kalkuluen arabera, gutxienez 10.000 esklabo “bataiatu” zituzten mende eta erdian Cádizen –ur bedeinkatuz busti eta izen kristaua emanda, gorputza ez ezik izatasuna bera ere lapurtzen zieten– eta 17.000 saldu zituzten enkantean. Asko otomandarrek Mediterraneotik eramandako dalmaziar eta hungariarrak ziren, baina batez ere Afrikako jendeak zituzten gustuko hiriko eliteek, haietzako artisau eta zerbitzari lanetan aritzeko.

Artxibo historikoetako salmenta dokumentuak eta parroketako jaiotza, ezkontza eta bataio aktak ditu iturri Morgadok. Eta kurioz da, esklaboez iritsi zaigun irudi maskulinizatua birrintzen duen beste datu bat ere ematen baitu historialariak: saldutakoen %52 emakumeak ziren. Bai, esklabotzarena ere historia androzentrista bat izan da oraindaino.

Baina zertara gatoz hau guztia kontatzera? Iberiar Penintsularen beste puntan dagoen hiriak baduelako lotura berezia

euskaldunekin. Gaur eguzkiaren eta *sale-roaren* bila turista saldoa joaten garen moduan, duela mende batzuk apellidu oneko euskaldun ugari ailegatu zelako haraino txin-txin hotsak deituta. Sevillan XVI. mendean Amerikako kolonietako merkataritzarekin –eta esklabotzarekin– aberastu zen euskaldun ugari zegoen moduan, Cádiz en ere errotu zen komunitate sendo bat: *vizcaíno*-en antigoaleko kolegioak, kaperak eta Kristoren Pasiorako kofradiak aurkituko ditugu haien pausuen atzean.

GARAYCOECHEA, ESKLABOA VS. KORTSARIOA

XVII. eta XVIII. mendeetan euskaldunak erruz aurkituko ditugu hirian, izan ontzidietako kapitain, izan *skyline*-a eraldatu zuten zaintzarako dorreen etxejabe... eta, jakina, esklabisten artean ere bai. Cádizko Probintzia Artxibo Historikoan hamaika agiri daude erakusten dutenak gizakien trafiko horretan euskal jatorriko familiek zeukaten inplikazioa.

1767an, adibidez, Tomasa Irisarrik – Jose Aguirre eta Larraguchia ontzi kapi-





CADIZKO PROBINTZIA ARTXIBO HISTORIKOA



BELTZEN KONPAINIAREN ARRASTOAK

Cadizko Probintzia Artxibo Historikoan, 4.502 zenbakia daraman notaritza-protokoloan, Cadizko Beltzen Konpainiaren sorrera dokumentua kontserbatzen da, 1765. urtean idatzia. Ofizialki *Aguirre, Aristegui y Cia* izena zuen, euskaldunek negozio horretan zuten presentzia hegemonikoaren adierazgarri.

Beste baldintza batzuen artean, esaten da konpainiak ez zituela onartuko erditu berriak ziren emakumeak, ezta "bularrak erorita" zeuzkatena ere. "Hondatuta" zeuden beltzak ere ez zituen onartuko, hala nola "itsuak, gaixoak edo gaixoberak, eta zilborra kanporantz dutenak, *ombligones* izenez ezagunak, izorratuta daudelako". Bubi herrikoak ere ez zituzten nahi, "hortzak zerra bezala dituztelako", baina cabaraliak bai. Musangaeak, mondongoak eta angolak ez, baina bai lukumiak, minak, mandingak eta mososoak...

Hori bai, den-denak markatzen zituzten enpresaren ikurra zeraman *karinbo* goriz (ezkerreko irudian), horretan ez zuten bereizketarik egiten.

tainaren alarguna-, José Benizo izeneko "esklabo beltza" saldu zion bere anaia Santiago Irisarriri zilarrezko 100 dukaten truke. Urtebete lehenago, Ignacio Zurbituagak berea zen esklabo bat "askatzeko" agindu zuen, Maria Dolores izenekoa eta 26 urte zituena, beste esklabo "libre" batekin ezkondu ahal izateko. Senargai esklabo-ohiak Caietano Mendieta zuen izena, eta "Pedro Mendieta ren jabetzakoa" zela dio dokumentuak.

Halakoak maiz topatu ditzakegu notaritza-protokolo eta testamentuetan, izen artifizialaz gain, esklaboek jabearen apellidu jator askoa ere eraman ohi zutelako bizitza osorako. Hori izan zen, esaterako, Miguel Leabururen kasua. Ez dakigu txikitari portugaldarrek Afrikako ibai bazterren batean bahitu ote zuten edo Cádizen bertan jaiotako eta leaburuar aberastu batek

Francisco Mendinueta
Cádizen bizi zen nafarrak
1754an Espainiako
Koroaren baimena lortu
zuen 3.000 beltz Río de la
Platara eramateko

erosi ote zuten, baina badakigu 1759an askatasuna lortu zuela.

Miguel Garaycocheak ere askatasuna lortu zuen 1761ean, bere nagusi Pedro Garaycocheak hala nahi izan

zuelako. Azken honen familia jatorriz Lesakakoa zen eta Pedrok dirutza egin zuen kortsario bezala itsasontzi holidarrak harrapatzen. Cádiz erdigunean zuen etxe dotorearen azpiko pasabide ezagun bati horrela deitzen diote oraindik: "*El arco de Garaicochea*".

COMPAÑIA DE NEGROS: LEHEN ENPRESA ESCLABISTA

Portugaldar eta ingelesei kopiatuta, esklabotza negozio handi bat bilakatu nahi izan zuen espainiar koroak XVIII. mendearen erdialdean. Bere kolonietan loratzen ari ziren azukre sailentzako erregaia, eskulana, giza haragia behar zuen, eta zuzenean edo "*en derechura*", Afrikako kostaldera joateko baimenak ematen hasi zen. Hor ere euskaldunak izan ziren aktore printzipalak.



Cadizko moila 1867an, esklabo trafikoaren garaian.

LABARRIETA


Gordexolar bat Pedro Martínez trafikatzaille handiaren bazkide

Euskal Herrian emeki-emeki ari gara ezagutzen iraganean esklabotzan aritu ziren hainbaten izen-abizenak, Manuel Calvo, Julián Zulueta edo José Matia dira horietako batzuk. Baina negozio inhumano horrekin dirua egin zutenak askoz gehiago izan ziren, nahiz eta itzalpean geratu. Hori da Pedro Felipe del Campo Labarrietaren kasua.

Gordexolan jaioa 1791n, Pedro Felipe osaba Cosmek deituta iritsi zen Cádizera eta laster bere negozioen kargu egin zen. Han, esklabista handi baten lagun bihurtu zen: Pedro Martínez kantabriarra.

BISAIA GAIZTO BAT

Martínezen bizitza beldurrezko pelikula bat egiteko modukoa izan liteke, baina oraingoz liburu bat daukagu, Carmen Cozar historialariak idatzia: *La orca del Atlántico* (Atlantikoko Orka, Silex, 2020) goiburua darama. Bertan kontatzen du Martínezek Kubara emigratu zuela gaztetan eta 25 urte besterik ez zituen lehengo goleta bidali zuela Afrikara esklabo bila. Konpainiak sortu zituen Habanan zein Cádizen eta, 30 itsasontziko ontzidiaz izatera iritsi zen, pertsonen trafikoan erabiltzeko. Terence MacMahon Hughes idazle eta bidaiari irlandarrak honela deskribatu zuen: "Martínez oso pertsona arrunta



Esklaboak garraiatzeko itsasontzi baten krokisa, 1789an abolizionista ingelesek egina.

eta itxura txarrekoa da, eta bere lanbidearen gaiztakeriek bisaia okerragotu eta urratzen diotela dirudi". Halako gizaseme baten bazkide egin zen Gordexolakoa.

1827an *Campo Labarrieta* y *Martínez* konpainia sortu zuten eta handik bi urtera *María* izeneko goleta bidali zuten Afrikara; 270 esklabo eramane zituen Habanaraino. Hurrengo urtean ingelesek itsasontzia harrapatu zuten sotoan 505 esklabo zituela. Baina ez zuten etsi, eta espedizio gehiago antolatu zituzten Cádiztik: 1830ean *Mari-nero* ontzian 444 esklabo arribatu zituzten Kubako kostaldera eta *Rosalía* izenekoan beste 369.

Konpainia desegin zenean, Pedro Felipe Cambo Labarrietak itsasontziak erosi eta espedizioak antolatzen jarraitu zuen. Esaterako, *Cazador Santurzano*-ren jabe egin zen, Neguriko Ybarra familia boteretsuak esklaboen negozioan murturra sartzeko erabili zuen berbera.

Beste esklabista batzuekin ere izan zituen hartu emanak; Málaga Pedro Blancoren agente egin zen, askoren esanetan garai hartan Afrikan zegoen trafikatzaille handiena.

Campo Labarrieta Cádizko zergadunen *top*-ean egotera iritsi zen. 1843an hil zen San Lucar de Barramedan, atsedenerako bere etxean.

Testuinguru horretan, esklaboen salerosketan propio espezializaturiko munduko lehen enpresa sortu zuten Cádizen 1765ean, eta espantuzko izen bat jarri zioten: *Compañía Gaditana de Negros* (Cádizko Beltzen Konpainia). Trafiko ilunetan zaildutako euskal tratalariak aurkitu ditzakegu inbertitzaile nagusien artean (Miguel Uriarte, Juan José Goicoa, Francisco Agirre, Lorenzo Ariztegui...), eta legatu makabro bat utzi zuen konpainia horrek: 1779an likidatu zutenerako, 27.000 esklabo baino gehiago zituen eramane jakandik Atlantikoan barrena.

Historia hori tipexarekin borratua bezala egon da mende biz, 1970eko ha-

markadan Bibiano Torres ikerlari andaluziarrak liburu batean jaso zuen arte: "Oso zaila da beltzen trafiko horrekin konpainiak lortutakoaz balantze bat ere egitea", zioen ernegaturik hastapen haietan. Gaur egun gehixeago dakigu konpainiari buruz, eta Cádizko Probinzia Artxibo Historikoak bere altxor bat bailitzan dauka erakusgai euskal-cadiztar konpainia esklabistaren sorrera dokumentua.

MENDINUETA, CÁDIZKO EUSKAL TRAFIKATZAILA EZEZAGUN HORI

Askoz gutxiago dakigu, ordea, Hego Amerikara esklaboak eramateko sorturiko beste merkataritza sare baten

inguruan. Cádizen bizi zen Francisco Mendinueta nafarrak, Espainiako Koroaren *asiento* edo baimen bat lortu zuen 1754an: hamar urtez sei itsasontzi pleitatu ahal izango zituen Río de la Platarantz, salgai ugariarekin beteta, eta tartean 3.000 beltz ere bai. 1760rako itsasontzi guztiek egina zuten bidaia hori, batzuk zuzenean joan ziren, eta beste batzuk Gineako Golkotik igaro ziren "merkantzia" preziatuaren bila. Aldiz, *San Ignacio* izeneko geroago irten zen, Pasaia portuan zeukatelako oraindik karenatzen. Itsasontzi hori Uztariz familia boteretsuak utzi zion Mendinuetari, baina ez dakigu azkenean patrioiak lortu ote zuten bere helburua.


Paseotxo bat Cadiz zaharretik?

Cádizko hiriaren galtzada-harrizko kaleetan barrena ikusmiran den turistak oraindik suma dezake eraikinen eite airos bat eta halako atmosfera kolonial bat: *La Habana es Cádiz con más negritos, Cádiz La Habana con más salero...* dio habanera famatuak. Kubako hiriburuarrekin sinbiosi hori XIX. mendean bereganatu zuen, azukre eta esklaboen abaroan aberasturiko merkatarien jauregiekin bete zirelako zabalguner berriak **(1)**.

Mina plaza zen eliteen bilgune nagusietakoa, bere drago eta palmondoekin. Eta hantxe eraikiarazi zuen José Matía Calvo **(2)** laudioarrak beretzako etxe bat 1840ko hamarkadan, orain arkitektoen elkargoaren egoitza dena. Matíak txinatar esklaboekin trafikatzan egin zuen bere fortunaren zati bat eta, besteak beste, Cádizko Bankuko fundatzaileetako bat ere izan zen. Bizitzaren amaieran, itxuraz atake filantropiko batek erasanda, bere diruak zaharrentzako egoitzak egiteko utzi zituen Donostian –egungo Matia fundazioa– zein Cádizen.

Beste esklabista askoren lorratza ere jarrai daiteke Cádiz zaharrean: Compañía Trasatlánticaren bulegoak **(3)** Antonio Lpez kalean zeuden; Sierra Leonan esklaboentzako biltegi bat izatera iritsi ziren José eta Fernando Abarzuza anaien konpainiaren egoitza eta jauregiak nonahi daude; eta Pedro Felipe del Campo Larrieta **(4)** gordexolar agente *negreroa*-ren etxea katedraletik bi pausotara.

Portura arrimaturik, berriz, Arabako Zuluetan klanaren etxe horixka **(5)** bat topatuko dugu antzinako gerra-kanoi bitxiez inguraturik. Pedro Juan Zulueta bizi izan zen bertan, Cádiz bezala Londresen zituen banku-negozioekin esklabo trafikatzaileren kapitalak kudeatzen abila, besteren artean Kubara 800.000 esklabo eraman omen zituen Agustín Sánchez Ríansareseko dukearen –Maria Cristina Borboikoaren senarra– diruak maneiatzen zituen.



URKO ARAOLAZA / ARGIA CC-BY-SA

Badugu
zer irakurri,
zer pentsatu,
zer sakondu...

elkar
elkarargitaletxea.eus

Pruden Gartzia

Alaitz Melgar Agirre

Urtzi Urkizu

Izan ere, Sevillan dagoen Indietako Artxibo Orokorrean gordetako paper-sortetan leitu daitekeenez, Mendinueta kezu zen, ez zitzaiolako giza-salmenta errentagarri ateratzen, besteak beste, ez zuelako arroparik Buenos Airesen pilotuta zeuzkaten esklaboentzako eta "aire librean lo egiten dutenez hil egiten direlako". Galera dirutan kuantifikatzen zuen, noski.

Esklavo trafikoa legala zen garai hartan, eta beste askok ere gizakien gorputzak salerosten dirua egin nahi izan zuten. Adibidez, Enkarterrietako Julián Antonio Urkulluk eta Gorbeialdeko Julián Martínez de Murgiak esklavo beltzak garraiatzeko eskaera bana egin zuten 1770ean eta 1773an, hurrenez hurren. Baina Cádizko lobby esklabistaren oztopoek hankaz gora jarri zituzten euren pretentsioak.

EUROPAKO AZKEN PORTU NEGREROA

1817tik aurrera, Ingalaterrarekin sinaturiko akordio baten ondorioz Espainian esklabotza formalki ilegalizatu zenean, urrezko beste aro bat hasi zen trafikatzailentzat: merkatu beltzarena. Esklaboak ezkutuan kolonietara eramateko bidaiak askoz errentagarriagoak bihurtu ziren ingeles armadak harapatuak izateko arriskuagatik beragatik, eta Cádiz izan zen kontrabandisten portu gogokoenetako bat.

1864an Espainian kontsul britainiarra zen Alexander Dunlopek *Foreign Office* Erresuma Batuko Kanpo Ministerioari bidalitako gutun batean aitortu zion Cádiz "esklavo trafikoaren europar zentroa" zela momentu horretan. Eta hala dirudi.

Pompeu Fabra unibertsitateko Lizbeth Johanna Chaviano historialariak *Foreign Office*-eko iturriak erkatu ditu *Slave Voyages* interneteko datu base ikaragarrian aurkiturikoekin, erakusteko noraino zeuden Cádizko merkatariak lokatzetan zikinduta. Bere esanetan, esklavo trafikoa ilegala zen garaietan Iberiar Penintsulako ontzi negreroen %65 Cádizko portutik itsasoratu zen: denera 51 espedizio.

Oso berandu arte iraun zuen esklabotzak Cádizen, hainbeste, ezen Europako azkenetako portua izan zen garraio genozida hori praktikatzan, 1866. urtera arte.



Cádizko Probintzia Artxibo Historikoko atea, Cristobal Colón kalean.

Oso berandu arte iraun zuen esklabotzak Cadizen, hainbeste, ezen Europako azkenetako portua izan zen garraio genozida hori praktikatzan, 1866. urtera arte

ontzi ikusi zituen Cádizko moiletan Afrikara joateko prestatzen. Horien artean *Cicerón* izenekoa zegoen, Julian Zulueta arabar esklabista handiak bidalitakoa. Azaroaren 5ean Kubako Playa Girón hondartza mitikoa agertu zen 960 pertsona gatibu zeramatzala, beste 149 bidan hil ziren.

Chavianok dioenez, esklavo trafikoan sudurzuloetaraino sartuta zeuden "etxe komertzialen erdigunea izan zen Cádiz" denbora luzez, beste portu eta negozio askotako atea irekitzeko tranpolin bat. Zer esanik ez handik sorturiko euskal fortunentzat. Eta batzuentzat iraganeko kontu deserosoa izan arren, beharrezkoa da gogora ekartzea, feniziar panpina horiek bezain historia efimero bihurtu ez dadin. ●

mitxelena *Koop*
MEKANIZATUAK
Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100
LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus
www.talleresmitxelena.eus

ALDUDE IBARREKO ATE IREKITZEAK

Bakardadearen arazoari erantzun kolektiboak eman nahian dabilen mendiarte

Urepele, Aldude eta Banka herriak batzen dituen Aldudeko ibarra bizirik eta airoski bizirik atxikitzeko asmoz dabil lanean AIBA Aldudeko Ibarra Beti Aitzina elkarteak. Solastatzeko dorpea izan daitekeen gai bat mahai gaineratu du aldi honetan, urriko bigarren asteburuan eginen dituzten Aldudeko ibarreko ate irekitzeen kari: bakardadea. Hitzordua jarri dute urriaren 10erako, Aldudeko Alfaroenea ostatuan, ahal bezain bat herritar bildu eta azken hilabeteetan eramandako gogoeta borobiltzeko xedez.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bere enpresa, etxalde, elkarte eta ostatuekin, haran dinamikoa izaten segitzen du Aldudekoak. 300 herritar inguruko Urepele, Aldude eta Banka herriak baturik dira mendi artean, eta urriaren 10etik 13ra ukanen dituzte bi urtero antolatzen dituzten ibarreko ate irekitzeak. Besta giroan pasako diren egun horiek gai sakon eta serioez solastatzeko ere baliatu ohi ditu AIBA elkarteak. 2016an sortu zuten hainbat herritarrek elkarteak, herrian bizitzeko aukerei eta trabei buruz taldean gogoetatze xedez. Aurtengoan, bakardadearen gaia hautatu dute, eta dozena bat lagun dabilta hausnarrean. “Urrundurik diren ibarrentzat bada seriooki hartu beharreko gai bat”, dio elkartearen dinamizatzaile Pascal Darrieumerlouk. Bistan da, bakardadeaz galdetzerakoan kontrajarririk izan daitezken hainbat ideia atera zaizkie: “Jende bat bakarrik bizi daiteke, baina ez bakarrik sentitu; beste bat jendez inguratua izan daiteke baina bakarrik sentitu... Ideien ala nortasunaren aldetik sentitu zaitezke bakarrik, edo herriaren bihotzetik urrun bizi zirelako”, dio elkarreko Danielle Hirigaray aldudarrak. Ondean du Pantxo, senarra, ideiar tiraka ondokoa gehitu diona: “Bakardadearen alde negatiboek eraman gintuzten gai horri buruz gogoetatzera, baina azkenean,

bi aldeak ikusten dizkiogu, ez du bakarrik txarretik bakardadeak”. Gainera, gai berari begira jarri eta batak kalteak ikusi ditzake eta besteak abantailak. Demagun, sare sozialez aritzerakoan “belaunaldien arteko talka” gertatu izana aipatu du Darrieumerlouk: garai bateko harremantzeko bideez nostalgiko diren aitzineko belaunaldien, eta alderantziz, sare sozialak bakardadetik ateratzeko eta harremantzeko bide gisa dauzkaten gazteagoen artean. Bakardadearekin batera, transmisioaren gaia ere jorratu nahi izan dute, azkenean, eskuz esku doazen bi gai direlako.

Pertsonen arteko harremanaz aparte, geografiak ere bihurtzen du gaia zentzudun. Mendi artean, Baigorritik kasik hogeik kilometrotara dugu Urepele, geldigeldian mendirantz gora eginez, Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea bereizten dituen mugara arte. Baina kokapenari dagokionez, puntaren puntan izatearen sentsazioa ez da beti hainbeste sentitu. Begirada aldatu da: berriki arte Nafarroa Garaiko herriekilako harremanak ohikoagoak zituzten. Hizkuntzak –euskarak– ere egiten zuen harremana bazela Sorogainen beste aldeko auriztar, eugitar ala zubiriarrekin. Baina gazteen artean frantsesak euskarari lekua harturik harreman natural hori ere galdu dute.

Horretaz guziaz hausnartzen aritu dira azken hilabeteetan, eta gazte zein zahar, dozena bat herritarren lekukotasunak bildurik, gogoeta zabalduko diete guziei, urriaren 10ean, Aldudeko Alfaroenea ostatuan jarrita hitzordua –Kanaldude herri telebistan ikusgai izanen dena–.

Argi dena da Aldudeko ibarrak aldaketa handiak bizi dituela: nahiz eta azken urteetan berriz doi bat gora doan, populazioa azkarki ttipitu da –herriko 400 bat ziren 2000 urtean eta 500 inguru 1975 urtean– eta diren horiek elkartzeko aukera gutiago dituzte: etxaldeko lanak aitzina eramateko auzolan gutiago, zer erranik ez eliza izandako elkargunearen husteaz, baina, azkenean, sinpleki, elgar gurutzatu eta egoteko ohitura bera da galtzen ari. Baina etengabeko biziberri-tzean denez jendarteak, harreman-gune batzuk galdu eta beste batzuk agertzen dira. Hor dute adibidez, Urepele erdian eraikitako haurrentzako joko-parkea, hain justu, umeak eta gurasoak juntatzeko gisan pentsatua izan dena. Hor dute ere Alfaroeneak proposatzen duen agenda kultural aberatsa, Alduden. Eta, azkenik, hor dute Bankako Tunio etxebizitza proiektua, ordura arte plazatik urrun bizi ziren adindunei herriaren bihotzean apartamenduak proposatzera datorren egitasmo berritzailea. Baina bakardadea



AIBA elkartekoek antolaturiko solasaldietariko bat.

arintzeko bide gehiago atzeman nahian segitzen dute. Bakarturiko etxeetan direnentzat, taxiaren funtzioa beteko lukeen garraio zerbitzu baten ideia mahai gainean dute, adibidez.

Mugikortasunarentzat bezala, oro har, zerbitzuak eskuragarri izatean dute ibarran bizia atxikitze gako. Ogiaren banaketa etxetxe egiten duen okina badute, arrain saltzailea heldu zaie astean behin eta supermerkatu ttipi batek ere irekirik segitzen du... hots, beste harran batzuei konparatuz, nahiko ontsa hornituak dira. Zerbitzuei dagokionez, erizainak ibilki dira etxetxe eta posta ere irekia dute oraingoz –“Hari piru batek dauka posta irekirik”, dio hala ere Pantxok, 2019an zerbitzuaren hestearen kontra borrokatu behar izana gogoan–. “Egun guzietako borroka da, hautetsi gisa erne egon behar zara beti, ez ditzaizen zerbitzuak hetsi eta gainera, egitasmo berriak proposatu behar dituzu”, dio Urepeleko auzapeza den Xole Airek. Produktibitatearen ikuspegitik ez bada ere emankorra, baserri munduaren bizigarritasunarentzat ezinbestekoa delako zerbitzu publikoen bermea.

Instituzioen laguntza ezinbestekoa du AIBAK, nagusiki aterabideen gauzape nerako. Elkarlan hori interesgarria zaio Aireri: “Kolaborazio hori beharrik hor

Produktibismoaren ikuspegitik ez bada ere emankorra, baserri munduaren bizigarritasunarentzat ezinbestekoa da zerbitzu publikoen bermea

dugula. Bi zentzutara doa, edo AIBAtik ideiak ateratzen dira eta herriko etxeak hor dira gauzapenean laguntzeko, edo herriko etxeek gai bat landu nahi dute eta AIBAK bideraturiko solasaldietan ateratzen dira ideiak”.

Herriko etxeekin elkarlanean

Etxe hutsei buruz 2016an AIBAK abiatutako gogoeta dugu segur aski horren froga argiena. Hiru herrietako 570 etxeetatik 103 dira hutsak (eta beste ehun bigarren etxebizitza ala turismora bideraturik). Arazoa da etxe alimaleak direla, eta arraberritzeak sekulako kostua suposatzen duela. “Gazteek nahi dute herrian gelditu. Etxe hutsak alde batetik, etxebizitza bi-

laketan dabilen gazte belaunaldia beste aldetik. Horri buruz gogoetatu beharra dugu, hiru helbururi segi: lekuko ondareari balioa ematea, bilakaera demografikoa behekoz gora jartzea eta etxebizitza eskaintza segurtatzea”, zioen garaian AIBAKo Maika Alfarok. Departamendu mailako Arkitekto, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluarekin eramandako lanketaren ondotik, hiru herriko etxeekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin eta EPFL Lurra- ren Erakunde Publikoarekin elkarlanean hamabi etxeren ikerketa arkitekturela egin zuten, eta gaur egun herriko etxeek bultzaturiko hainbat arraberritze proiektu dira bidean.

2012an buruturiko *Aldude 2030* gogoeta dute guziaren oinarrian, izenak dioen gisara, soa ordutik hogeitaurter jarri eta mendiarte bizi bat irudikatzen ariketa izan zena. 60 problematika inguru zerrendatu zituzten, tartean, etxe hutsena edo bakardadearena. Ongi oroit du hausnarketa hura Airek, eta “bihurgune” gisa dauka. Sozialki ateratako ideiek inarrosi zuten: “Sozialki, beranta handia genuen. Tabu diren hainbat gai atera ziren: bakardadea, prekaritatea, alkoholismoa, homosexualitatea, bertzearen begiradaren pisua...”. Ez dira gai arinak, baina elkartu, tabuak gainditu eta taldean hitz egin ez arinagoa daukate pisua. ●

EGONARRIA PODCASTA



Mattin Jauregik eta Eli Pagolak jarraituko dute 'Egonarrria' podcasta gidatzen.

Laborariek badute zer kontatua eta non

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Maitasunez eta kontzientziaz betetako *Egonarrria* podcast-aren hirugarren denboraldia hastear da. 2023ko apirilean egin zuten lehen emanaldia, energia zuen ardatz saio hark, eta orduz geroztik 27 izan dira egindako programak. Irakurle, oraindik bat bera ere ikusi ez baduzu has zaitezke hirugarren denboraldiarekin zuzenean, ez daukazu goizaldeko ordu txikietan aurreko 27 emanaldiak ikusi beharrik datozen saio berriak ulertzeko, lasai. Baina lurra eta laborantza interesatzen bazaizkizu, hartu tarte eta *engantzatu*.

Eli Pagolak eta Mattin Jauregik hartu diote trukoa programari eta ikus-entzule fidelak badituzte, eta "hori estimatzekoa da", diote saioaren egileek. Lehenak lurrari lotutako aktualitateko

gaiak jorratzen ditu platoan, elkarrizketa formatuan, eta bigarrenak, berriz, landa-lana egiten du, lehen pertsonan Euskal Herriko ekoizle edo laborarien esperientziak ezagutu eta ezagutzera emanez. Denboraldi berri honetan gazteak izango dira Jauregik *Egonarrria* saiora ekarriko dizkigunak, erosoena eta errazena ez bada ere, lurraren eta laborantzaren aldeko apustua egin, eta horretan ari diren gazteak. Atal txiki bat gehituko zaio, gainera, horietako bakoitzari zerbait praktikoa erakusteko eskatuko baitie kazetariak: lan bat, prozesu bat, jakintza bat.

Iragan denboraldian, bestalde, ekoizle edo laborari horiei eskatu zitzairen hurrengoari opari txiki bat egiteko, halako hari bat sortuz batetik bestera. Soka-



DANI BLANCO

ARGIA SARIAK 2025 Hautagairik baduzu?

Urtarrilaren 31n bilduko gara Usurbilgo Atxega jauregian Argia Saria banatzeko. ARGIAko lantaldea ari da balizko saridunen zerrenda osatzen. Hala ere, irakurleon proposamenak beso zabalik jasotzen ditugu urtero.

Zeri emango diogu saria?

Euskarazko kazetaritza eta komunikazioa saritzen dugu atal hauetan: prentsa, entzunezkoa, ikus-entzunezkoa, Internet eta sustapen ekintza. Hainbatetan, halaber, Merezimenduzko saria ere banatzen dugu, euskal kulturaren edo euskal gizartean nabarmendutako pertsona, lan edo proiektua. Saritu daitezke lan zehatzak, saioak, sekzioak, hedabideak, pertsonak, proiektuak...

Esaiguzu nor edo zer sarituko zenukeen, eta zergatik.


Hautagaiak bidali, mesedez, helbide honetara: argiasariak@argia.eus

dantza horretan segitzeko asmoa dute hirugarren denboraldi honetan ere, formula gustatu zela ikusita.

Eta Lasarte-Oriako platora ekarri nahi diren adituen profila zein izango den? Arituena. Akaso beti lortuko ez bada ere, arituei, lanean eskuak zikitzen dituztenei, laborariei eman nahi baitie Pagolak ahotsa eta espazioa.

Denboraldi berriko beste aldaketa bat izango da maiztasuna. Hemendik aurrera bi aste behin zintzilikatuko dira emanaldiak, produkzioan pixka bat gehiago mimatu nahi delako programa, irudi gehiago sartuz eta patxada handiagoa eskainiz. Urriaren 23tik aurrera egongo da ikusgai denboraldi berriko lehen saioa, www.argia.eus eta www.bizibaratztea.eus webguneetan. ●

Awarei izarrak lapurtu zizkieten



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Tijarafe (Kanariar Uharteak), XIV. mendearen erdialdea. Lehen monje katolikoak La Palma uharteko inguru horretara iritsi zirenean, ikusi zuten awarek, bertako aborigenek, Eguzkia, Ilargia eta izarrak gurtzen zituztela.

Eta azken urteetan Tijarafaren egindako kanpaina arkeologikoez hori berretsi dute. Bertako udalak eta Cultania enpresak antolatutako *Occidente* proiektuaren baitan, uda honetan Tijarafeko III. Campus Arkeologikoa egin dute, eta 30 aztarnategi inguru identifikatu dituzte. “Dentsitate handiko okupazio aborigena adierazten du horrek”, Javier Soler arkeologoaren hitzetan. Guztira, ehundik gora aztarnategi erregistratu dituzte. Paraje hartako sakan eta kobazulo ugarietako batzuk hildakoak ehorzteko eta izarren gurtzarako erabiltzen zituztela baieztatu dute, eta beste batzuk, horretarako egokiagoak zirenak, bizitoki modura. “Unitate domestiko zabalak osatzen zituzten, ingurua ekonomikoki ustiatzen zutenak, eta paisaiatz sinbolikoki jabetzen zirenak”.

Baina gaztelarrak iritsi zirenean, sinbolikoki nahiz ekonomikoki jabetu ziren inguru haietaz. Monje katolikoaren ondoren, XV. mendean, konkista militarra iritsi zen, eta horrekin batera ebanjelizazio behartua. “Indigenen praktikak debekatu zituzten, uharteetako kosmogonia baztertu zuten eta ezagutza modu pro-



Tijarafeko campus arkeologikoan uda honetan ikertutako kobazuloetako bat.

pioak desegin zituzten, berriak barnerratu zituzten”, dio Miguel A. Martín González historialari eta La Palma uharteko Historiaurreari buruzko *Iruene* aldizkari-ko sortzaile eta zuzendariak. “Kristautze prozesua nahiko azkarra izan zen, akulturazio basatiari eta sinkretismoari esker”. Izan ere, awaren sinesmenak ez zituzten besterik gabe suntsitu, teologia katolikoaren arabera interpretatu zituzten. “Bertakoen diskurtsoa ezagutu eta estrategikoki manipulatu zuten, besteak beste, irudien gurtza eredu dogmatiko modura inposatuta”. Esaterako, XVI. mendea hasi berritan, Kandelarioko Ama Birjinaren irudi bat eraman zuten Tijarafera, Pino Araujo sakanako koba-

zulo batean sartu zuten, ordurarte awarek erabilitakoa, eta “Ama Birjinaren kobazuloa” esango zioten handik aurrera.

Gaur egun, Kandelario egun inguruan, otsailaren 2an, Tijarafeko Kandelario elizatik Canopus izarra La Pileta eta Guanche haitzen artetik agertzen dela ikus daiteke. Bi haitz horietan labarretako grabatuak, kanalak eta bestelako arrastoak aurkitu dituzte, awarentzat toki sakratuak ziren seinale. Katolikoak bereganatu baino lehen, haientzat Canopus izarrak euri garaia iragartzen zuen.

Eta, gaur egun, urriaren 12an, Kanariar Uharteetan nahiz Amerikan egindako suntsipen kulturala ospatzen dute oraindik batzuek. ●

Emakume mochica nabarmen bat

Peru iparraldeko kostaldean, Pañamarca aztarnategian, mochica kulturako (K.a. 330- K.o. 800) tronu areto bat aurkitu berri dute. Arkitektura ikusgarriagatik, iruditeria erlijioso zabalagatik eta xehe-tasunez betetako hormairudi koloretsuengatik ezaguna da kultura hori.

Aurkitutako aretoak ezaugarri horiek berresten ditu, baina ezohiko elementu bat erantsi du: alboko irudian ikus

daitekeenez, tronu horretan emakume bat esertzen zen. Adituek ez dakite emakume apaiz bat zen, erregina ala jainkosa zen, baina komunitate horretan toki nabarmena zuela garbi adierazten dute irudiek. Columbiako unibertsitateko Arte Historia katedradun Lisa Treverren esanetan, aurkikuntza hau “kultura mochicaren genero rolez uste genuena aldatzen ari da”. ●



LISA TREVER / CILUMBIAKO UNIBERTSITATEA

GUILLERMO PUZUELO / TIJARAFEKO CAMPUS ARKEOLÓGICOA

UDAZKENEKO GARBIKETA



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Bada urtebete udazkeneko bederatziruak nola egin artikulua idatzi nuela eta berriz ere urta-roak eskatzen digun lanaz idatzi beharra daukat. Izan ere, gibel garbiketa egiteko sasoiak dugula esanez publikazio dezente ari naiz ikusten sare sozialetan eta kezka eragin dit. Orain udaberriari sartzera doazenentzat balioko du baina guri beste organo batzuei begira jartzea dagokigu eta ez genuke nahasmendurik sortu behar.

Gure artean udaberri zein udazkenean egin izan dira bederatziruak eta garbiketak, gorputzari aldaketa askotara egokitzea dagokiolako akaso, gaitz askok piztualdi edo txarraldiak izaten dituztelako eta garbiketa horiek egiteko sendabelarrak indarrean dauzkagulako ere bai, ziurrenik.

Iaztik norberari balio dion bederatziruena egiten ari den horrek galdetu izan dit ea hilak dituen gainerako egunetan egin ote dezakeen beste zerbaitekin. Erantzuna baiezkoa da eta aukerak ditugunez batzuk aipatzera goaz, bakoitzak berari ongien datorkiona –albo ondoriorik ez dakarkiona– aukeratzeko.

Edonola ere negua etorri aurretik gorputzean atxikitako gehiegizko liki-

doak kanporatzea, maskuri zein giltzurrunak indartzea, izerdi bidezko garbiketa egitea, linfari garbitu bat ematea eta mukiak (baleude) kanporatzea izango dira helburuak, beti ere gorputzak uzten digun neurrian.

Sendabelarrek dakitena liburuan hiru sustrairen tintura depuratuazaleaz hitz egin nuen eta sustrai horietako bati begira jarriko gara, txikori-belarraren (*Taraxacum officinale*) sustraiari. Udaberriari hostoak zein sustraiak erabili ditzakegu gibel garbiketa egiteko baina bere ahala handia da eta udazkeneko sustraiak propietate ezberdinak dituztela diote ikerketek.

Irakurle askok txikori-belarra esanda lore urdindun sendabelar bat (*Cichorium intybus*) izango du buruan eta ez da gaizki ari, bere sustraiak ere erabili izan direlako kafearekin batera edo kafearen ordezkotako txikoria egiteko. Kafearen krisia gertatu zenean hasi zen txikoria gehitzeko ohitura nonbait eta sendabelar baten zein bestearen sustraiak erabili izan ziren, lekuaren arabera. Gaur egun belardendak saltzen dena bigarrena da, lore urdindunaren sustraiak, ez *Taraxacum officinale*rena. Sendabelar bikainak dira biak ere, egi-

ten duten lan terapeutikoa ez da gutxiesten.

*Taraxacum officinale*ren sustraiak bi hortzeko aitzurrarekin atera, ura eta eskuilarekin garbitu, txanpon neurrian moztu eta kartoi gainean lehortzen dira. Ongi lehortuta daudenean zartaginean xigortu eta ondoren kafea ehotzeko errotatxoan ehotzen dira, txikituz. Ondoren berriro xigortzen dira eta erabat hoztutakoan ontzi hermetikoan jasotzen. Belardendak *Cichorium intybus* erosten duenak xigortu eta ehotzen bakkarik dauka lana.

Bera hutsik edo kafearekin batera har daitezke (%50ean edo gutxiago) baina ez dute gozagarririk onartzen, bestela depurazio lana eragotziko dugulako. Atzetik ohi bezala gosaldutakoan daiteke.

Hipertentsioarentzat, bihotzerako edo giltzurrunetarako botikak hartzen baditugu sendabelar hau erabili aurretik medikuari galdetu behar zaio. Haurdunaldi eta edoskitzaroan ez erabili. Haurrentzat ere ez da egokia. Urdaileko gaitzak baditugu bihotzerrea eragin dezake. Udaberri zein udazkenean bederatziruak edo garbiketarik sekula egin ez duena ez dadila zuzenean hau egiten hasi, indartsuegia izan litekeelako. ●

A ZE FAUNA!

EZTENA, MARMOKENA EZ DENA



**ENEKO BACHILLER
OTAMENDI**
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Aurtengo udan ez dugu gure hondartzetan marmoka gehiegirik ikusi. Baina ehunka pertsona izan dira Kantauriko postuetan artatuak, Galiziatik Euskal Herrira. Marmokak? Ez. Karabela portugaldarrak orduan? Ezta ere. Oraingoan, arrain baten eztenak izan dira ur-ertzean hankutsik ibili den jende mordoaren amesgaizto. Eta marmoken ziztaden bikoitza baino gehiago eragin dituzte azken hiruhilekoan.

Xabiroia espezie ezaguna da kostaldean, baina hondartzetan duen eraginagatik are ezagunago bilakatzen ari da, pixkanaka. Gure kostaldean aspaldidanik bizi da; horren erakusle da espezie honek duen izendegi zabala: koxka (zergatik ote?), lapabitxa, hondarrazpikoa, salbeoa edo salbarioa... Arrandegietan hain ohikoa ez bada, batez ere, arrantzaleak eurentzako gorde izango zutelako da, ziurrenik. Horrez gain, artisau-arrantzaleek haien eguneroko harrapaketatara sarritan hartzen badituzte ere, kontuan izan behar da gehienetan kopuru txikietan harrapatzen dituztela.

Xabiroia itsas hondo hareatsuetan bizi da, normalean kostaldetik hurbil. Hondarrean erdi-estalita egon ohi da, sarritan hondarraren kolorearekin mimitizatuta, harrapakinek ikusi ez dezaten. Horrela, arrain txikiak, izkirak edo bestelako krustazeoak haren aho paretik igarotzean, bat-batean irensten ditu, aho-mugimendu bizkor batez (za-



ENEKO BACHILLER

poen antzera). Gorputz luze eta estua du, begiak elkarrengandik hurbil eta buaren goialdean. Kolore turkesa izaten du, baina harrapatu eta uretatik atera ahala apalago bihurtzen da. Sabelaldea hori-zurixka du, orban urdinak ere ageri dituen -hortik, agian, saburdin izena ere hartzea, Bizkaiko hainbat herritan-.

Edozein kasutan, espezie honen ezaugarri nabarmenena dituen ezten pozoitsuena da. Batetik, ziztada arriskutsuena haien albo banatara dituzten operkuluen ertzeko arantzarekin eman dezakete; horretarako, arrainak bere gorputza kiribiltzen du eta zartada azkarrak eman ditzake. Arrantzaleek ongi dakite kontuz ibili behar dela xabiroia amutik edo saretik askatzeko orduan. Bestalde, buaren gainean duten lehen hegatsen (hegats dortsalean, alegia) ezten pozoitsuak dituzte, normalean kolore beltza dutenak, tamaina ezberdinekoak. Hauek izaten dira, zortedun bagara, hondarrean gabiltzanean bereizi ahal izango ditugun puntu beltzen adierazle. Horien funtzioa ulertzea erraza da: zer egingo genuke, ezpata bat izanda, erraldoi baten hanka gainera etorriko balitzaigu? Defendatu -gezurra badirudi ere, itsas ekologiaz ari gara hemen-. Hori da hain justu ere arrain honek harrapari handien mehatxuei aurre egiteko duen estrategia; hegats dortsaleko eztenak tenkatzea. Ez dira beraz arriskutsuak bere hartan eta, gehienetan, ihes egingo dute. Hondarrean oinutsik gabiltzanean, hondarra

XABIROIA

Trachinus draco

TALDEA: Ornoduna/Arraina.

NEURRIA: 25-30 cm. Handienak 40-50 cm eta 15 urte izatera heldu daitezke.

NON BIZI DA? Espezie bentonikoa da, itsas hondo hareatsuetan bizi da. Kostaldetik hurbil egon ohi den arrin, 300 metroko sakoneratan ere bizi daiteke. Ekialdeko Ozeano Atlantikoan, Itsaso Beltzan eta Mediterraneo itsasoan bizi da.

ZER JATEN DU? Itsas hondotako krustazeoak eta arrain txikiak. Gaez ehizatzen dute gehienetan.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

mugituz oinak arrastaka joango bagina, ziurrenik haiengandik salbu ginateke; eta haiek gugandik.

Okerrean ziztada jasoz gero, onena adituengana jotzea da, neurotoxinek eragindako mina lehenbailehen arintzeko. Bestela, kaltetutako atala ur oso berotan -ia-erretzeraino ahal bezain beste- 30 minutuz mantentzeak ere laguntzen omen du. Eta ez igurtzi, sekula.

Ziztadak ziztada, askori zaila egingo zaio arraina plateretan irudikatzea. Baina xabiroia arrandegitan hain ugaria ez bada ere, kontuan izan Euskal Herrian aisialdian lakot-arrantzan dabilzanen harrapaketatara espezie garrantzitsuenetako bat dela. Eta horretan dabilzanek jakingo dute zer bait.

Eskura izanez gero, beraz, kendu beldurra, eta ez aukerarik galdu. Etxera osorik ekartzekotan, hartu alboetatik (arantzei erreparatuta), moztu guraizuekin burua, uzkitik abiatuta, operkuluen atzetik, buruaren gaineko hegats dortsaleko pozoitsuak kendu arte. Mozketa bakarra, listo. Hortik aurrera, prestatu antxoak balitz bezala, edo xerratan. Probatu, eta ulertuko duzu zergatik ez den hain ohikoa, arrandegietan. Eta inguruan haurrak izatekotan, haiek ere probatu dezatela. Aurretik haiei bere ezaugarri eta berezitasunak azaldu ondoren, ahal bada. Ez dutela gustuko? Ea bada maionesarekin, edo limoiarekin. Baietz asmatu. ●

LEZKAREKIN SAGARDO HOBEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Barrikoteak, barririkak, bukoiak eta upelak bete berriak ditugu etxean sagar muztioz (*Malus domestica*). Makina bat beteko ziren, ipar eta hego, gure geografia guztian mahatsarenarekin ere (*Vitis vinifera*). Sagasti, mahastiko lanak eta dolare, soto, upelategi eta pitarretako lanak gainezka dabilta ardozaleak.

Lehen besterik ez bazen ere, egun zurik ukitu gabe egiten dituzte edari gehienak. Gurean upelgaiak, ontzien upolak, egiteko haritz kanduduna (*Quercus robur*), haritz kandugabea (*Quercus petraea*), gaztaina (*Castanea sativa*), gerezia (*Prunus avium*), sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), lizarra (*Fraxinus excelsior*) eta askoren ustearen kontra, pagoa (*Fagus sylvatica*). Orain ez bezala, lehen zur asko erabiltzen zen ontzigintzan. Zurezkoak ziren baita gaur metalezkoak diren uztaiak ere; gehienbat gaztaina eta hurritza (*Corylus avellana*) erabili izan dira, baina baita haltza ere (*Alnus glutinosa*). Adibidez, Pasaian 1563an eraiki eta Kanadan Labradorko Red Bayn 1565ean urperatu zen San Juan baleontzia. Itsasontzia bera haritzekoak zen, baina gila pagozkoa eta masta-tantaiak izei zurizkoak (*Abies alba*); era berean, gainaldea ler gorrizkoa (*Pinus sylvestris*) izango zuela uste da. Tamaina ertaineko baleontzia zen, 22 metro luze, 7,5 metro zabal, 200 tona desplazatzen zituen eta 1.000 barrika eskas garraiatzeko gai zen. Horietatik 140 barrika topatu zituzten urpekarari arkeologo kanadiarrek 1978-1985 artean kroskoa aztertu zutenean. Barrিকা gehienak haritzekoak ziren, baina batzuk pagozkoak. Batzuen eta besteen uztaiak, den-denak haltzakoak ziren.

Barrika horietan zeramaten eskifaiaiko 60 lagun inguruk jan eta edango zutena. Garai hartako lan kontratuetan argi agertzen da: marineleko 3 litro sagardo



Lezka hostoestua (*Typha angustifolia*).

eguneko. Bale kanpaina bakoitzean zazpi bat hilabeterako joaten zirela kontuan izanik $60 \times 3 \times 7 \times 30 = 37.800$ litro sagardo eraman behar sotoetan. Itsasontzietan, etxeetan bezala, sotoa upelategi.

Gero sagardoa edango bada, orain barririkak, edo sagardogintzara emandako edozein ontzi, muztioarekin bete berriak, irekita egongo dira lehen hartzidura amaitzen den arte. Hartzidura hori alkohol hartzidura da; bertan sagarretik datorren azukrea alkohol bihurtuko da eta horretarako airea hartu behar du. Oxigenoa hartu eta CO2 karbono dioxidoa askatu. Azken horrek nondik alde egin ez balu, ontzia lehertuko luke muztioak. Hartzidura horren amaieran hasten da bigarrena, "malolaktikoa" esaten zaiona. Hori bai, oxigenorik gabekoa da, anaerobioa, eta ontzia itxita egotea komeni da. Horrela sagardoa findu egingo da, nahasian dituen osagai guztiak hauspeatu eta behera prezipitatu garbitu eta gardendu egingo da. Gero, bertan utziz gero azpiko ama horrekin ondu daiteke, baita gabe ere hura ateraz gero. Mahats ardoekin ere berdin

egiten da. Amarekin edo ama kenduta ezin eztabaidatuzkoa da ontziak erabat itxia egon behar duela. Zenbat eta hermetikokoago orduan eta bilakaera hobea egingo du barruko mamak.

Barrikaren gaineko zuloa ondo ixtea komeni da horretarako; tamainaren arabera kortxo handi batekin edo egur kozkor batekin bozatu eta itxiko da. Hermetikotasuna bermatzeko segoa jartzen da inguruan eta segoa xaguak jan eta airea sartzeko beldurrez, segoa igeltsuz estaltzen da. Hori denbora luzez utzi behar bada. Tarte hain handia ez bada edo arteka mama gozoa miaztea komeni bada, lan hori dena hartu beharrean kortxoaren edo egur kozkorren bultan lezka jartzen da. Bi lezka ditugu Euskal Herrian, lezka hostoestua (*Typha angustifolia*) eta lezka hostozabala (*Typha latifolia*). "Enea", "seska" eta "silla-belarra" ere esaten zaie; azken hori aukien eseritokia eratzeko erabiltzen zelako. Lakoizketak "artiria" eta Iztuetak "arteria" ere jasoak dituzte. Lezkaren hostoa -hestu, mehe eta luzea- lehortu ondoren sillak bezala saskiak egiteko ere erabilia izan da, baina baita barririkak behar bezala ixteko kortxoaren inguruan jartzeko ere.

Erreka ondoetan ikusten da lezka eta puru baten tankerako fruitua ematen du zorten luze baten muturrean. Zorten hori suziriak egiteko gaia da, eta hortik ote dator J. Irigaraik bere 1976ko *Estado actual de la onomastica botanica en Navarra* liburuan jasotako "seskatxufaska"? Edo txilibituak egiteko zelako? "Gezi seska" ere esaten zaio zuztar horri. O. Polunin eta B.E. Smythiesek 1977an argitaratu zuten *Guia de campo de las flores de España* liburuan "zinta-belarra" izena bildu zuten, baina, hiztegiatan hainbat eta hainbat izen bezala, nire ustez, oker.

Lezka izenarekin sagardo hobea. ●

SAREKO

BERTAKO ELIKAGAI EKOLOGIKOAK IDENTIFIKATZEKO BILATZAILEA



GARAZI ZABALETA


EAEko ekoizpen ekologikoaren kontseilua da ENEEK-Ekolurra, eta zertifikazioaz gain, eredu ekologikoaren aldeko sustapen lana ere egiten du elkarteak. “Gaur egun, argi ikusten dugu etorkizuneko eredu dela ekoizpen ekologikoa, eta badagoela honi buruzko informazioa emateko eta gaia agendan sartzeko premia”, azaldu du Judit Garcia Llorens Olaberriko Etxeberrigoikoa base-riko kide eta kontseiluko lehendakariak. Irailaren 23an, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Eguna aprobe-txatuta, erreminta berria aurkeztu zuten kontseilutik: Sareko bilatzailea.

NON ETA NOLA ESKURATU ELIKAGAI EKOLOGIKOAK?

Garciak nabarmandu duenez, herritarren partetik interesa egon arren, askotan informazioa falta da, eta hutsune hori betetzeko asmoz abiatu dute Sareko bilatzailea. “Hiru lurraldeetan ditugun produktu eta ekoizpen ekologiko anitzak azaltzen zaizkigu bilatzailean, gure inguruan zer dugun modu errazean

ikusteko”, dio. Mapa interaktiboaren bidez eta hainbat filtro dituen bilatzailearen bidez, herritarrek hurbilean dituzten proiektuak ezagutzeko aukera dute Sarekon. “Ekoizle eta eraldatzaileak gara bilatzailea elikatzen dugunak, guk diogu non eskuratu daitezkeen gure produktuak”, gehitu du lehendakariak.

Bilatzailearen lehen bertsioa da irailaren bukaeran aurkeztu dutena, baina, kontseilutik nabarmendu dute tresna dinamikoa izatea nahi dutela, alegia, ekoizle eta eraldatzaile gehiago egitaspora batzea eta bilatzailea berritzen eta zabaltzen joatea dela asmoa. “Momentuz, informazioa emateko eta kudeaketarako tresna da Sareko, baina ekoizle gutxi batzuek eskaerak jasotzeko ere erabiltzen dute eta etorkizunerako ideia da alor hori lantzea”, azaldu du. Asteroko azokak, kontsumo taldeak nahiz kooperatibak, herri eta auzoetako dendak... produktu ekologikoak eskuratu daitezkeen gune guztiak jaso dituzte: dagoeneko 200 puntutik gora biltzen ditu EAEko geografia osoan sakabanatuta.



EREDU EKOLOGIKOAREN AURRERAPAUISOAK ETA ERRONKAK

Lehen sektorea oro har gainbeheran eta krisian dagoen garaiotan, eredu ekologikoaren aldeko apustua zabaldu beharra dela azpimarratu du Garciak. “Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa da eredu, batetik, naturaren zikloekin batera aritzen delako elikagaiak sortzen, baina baita ekoizleen autonomia handitzen delako ere”. ENEEken 740 operatzaile daude gaur egun, eta denetik ekoizten dela azpimarratu du: ardoa, sagardoa, oilaskoak, txekor haragia, arrautzak, barazkiak, esnekiak, gazta, ogia... “Edozein pertsonak egunerokoan behar dituen elikagaiak ditugu”.

Azken urteotan ekoizpen kopurua hazten joan da baina lehendakariak azpimarratu du Europatik ezarri diren helburuetatik urrun daudela oraindik: “2030erako ekoizpenaren %25 ekologikoa izateko erronka jarri da, eta hemen, gaur egun, %5 inguruan gaude. Ekologikoa etorkizuneko eredu normalizatua izatea nahi badugu, pauso handiagoak eman beharko ditugu”. ●



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

**HEMEN DAGO
NAFARROA**



ReynoGourmet.com

CUBIERTOS



DALIA



URDAIBAI ETA GUGGENHEIM AURREZ AURRE

“Bi urteko gogoetaldia” iragarri zuten urte hasieran Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, baina ez da geldialdia izaten ari, etorkizunean izan ditzaketen oztopoak aurreikusten eta atontzen ari baitira erakunde publikoak. Horrez gain, uda betean, Dalia enpresa eraitsi dute Gernikan; hor eraiki asmo dute museoetako bat.

Hiru arlotan ari dira lanean Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformako kideak. Nagusiki, ezkutuko asmoen berri izaten eta informazioa jasotzen, horiek, gero, jendeari komunikatzeko, eta epaitegietan borrokatzeko.

Manifestazio nazionala deitu dute urriaren 19rako, Gernikan, 18:00etan.

 PATXI GAZTELUMENDI  HODEI TORRES / ARGIA CC BY SA

Gernikako Dalia enpresa eraitsi dute udan.
Bertan eraiki asmo dute museoak.

Astelehen goiza da Gernikan. Merkatu eguna. Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformako kideekin egin dugu hitzordua, Astran. Hiru lagun agertu dira ARGIAren zitara: Eider Gotxi, irakaslea eta aspaldian Urdaibaiko Guggenheimaren inguruko hitzaldiak eman eta eman ari den Bermeoko ekintzailea; Txema Garcia, idazle eta kazetari erretiratu; eta Gorka Barba, basogintzan eta ingurugiro lanetan buru belarri ari dena.

Urdaibai eta inguruko herritarrek osatutako herri plataforma da Guggenheim Urdaibai Stop. Urtebete da mobilizazio handia egin zutela Gernikan –Palestinaren aldeko mobilizazio handi bat deitu zen egun berean, gainera–, eta herri mobilizazio berri bat antolatu dute urriaren 19rako. Palestinako egoerak ez du hobera egin; museoarenak ere ez, antza.

Plataformako kideek informazioa eskuratu eta herritarren artean zabaltzea dute xede. Izan ere, kontrara, Guggenheim proiektuaren ezaugarri nagusia da informazio eta gardentasun eza. Inork ez daki proiektua zertan den. Bizkaiko Diputazioko kideek adierazten dute proiektuak bai ala bai aurrera egin behar duela. Proiektuaren erredakzioa ez dago inon eskuragarri. Udaletako arduradunek ez dute ezer argi, eta plataformako kideek informazio bila jarraitzen dute, hemen eta han, herritarrei helarazteko. Asko batu dute, eta bidean aurkitutako trabei aurre eginez, informazio hori mobilizaziorako baliatzen dute, kontzientzia sortzeko eta proiektua geldiarazteko.

Proiektuak bi egoitza izango ditu: Gernikan bat, Dalia enpresa zegoen egoitzan; eta Muruetan bestea, hamarkada luzez funtzionatzen eta kutsatzen aritu den Urdaibaiko itsasadarreko ontziolan. Bien artean oinezko lotura bat egin nahi dute, lau kilometro baino luzeagoa.

LEHEN GOLPEA: DALIAREN ERAISKETA

Udan mugimendu esanguratsurik egon bada, hori Dalia fabrika eraistea izan da. Alegia, bi egoitza horietako lehenengoaren oinarri fisikoa prestatzen hasi dira. Ekainaren bigarren astean hasi ziren eraisketarekin, Eider Gotxik azaldu digunez, proiektuari “bultzada handia” emateko.

“Daliaren eraisketak argi adierazten du museoaren proiektu honek lehenengo urratsak eman dituela”, argi mintzo da Gotxi. Ehundik gora hitzaldi eman



ditu Guggenheimen proiektua herriz herri azaltzen. Urdaibaiko ezinegona, Busturialdetik beste eskualdeetara zabaltzen aritu da beste herritarrekin batera. Eta orain arte, susmoa zena, nola gauzatzeko urratsak ematen ari den ikusi dute uda honetan bertan. Begien aurrean, Gernikan.

Ezustean hartu zuten hondeamakina handien lana Gernika erdialdean, trenbidearen paralelo. Inork ez zituen lanak iragarri, baina egiten ari ziren. Isilpean,

baina zarata asko eragiten; udan ete-nik gabe jarraitu dute lanek, eta amaitu dute. Eta segituan, Dalia fabrika eraitzita, azpiko urak garbitzeko lanetan hasiko dira. Dalia enpresa ezaguna zen nazioartean, 1970eko hamarraldian, koilarak eta sardexkak ekoizten zituen. Hitzetik hortzera ibili da azpiko urak kutsaturik dituela, amiantoz josita.

Garbituko dituztela eta akuiferoa “erabat kenduko” dutela hitzeman du Carlos Alzaga Bizkaiko Azpiegitura di-

putatuak Batzar Nagusietan. Are gehiago, esana du hori egingo dutela, helburua delako hor “museo” bat kokatzea. Horren inguruko informazio gehiagorik ez dutela dio Eider Gotxik.

BIGARREN GOLPEA: GUGGENHEIMEN ZUZENDARITZA

Erretiroa hartuko duela iragarri du Bilboko Guggenheim museoko zuzendari nagusi Juan Ignacio Vidartek, 32 urteren ondoren. Orain, bere lekua hartuko duten hurrengoaren bila ari dira. Hautaketa prozesua iragarri zuten udaberrian, eta udazken honetan aurkeztu nahi lukete zuzendari nagusi berria.

Agurreko elkarrizketaren batean, Vidartek oso argi adierazi du Gernikako Dalia fabrikaren eraisketa “lurren garbiketa” dela, baina helburua ez dela zertan izan museo bat, “beste ekintza batzuekin ere bateragarria” izan daitekeela. Baina plataformako kideek argi diote, Bizkaiko Aldundiak, lehen aipatu bezala, kontrakoa dioela, Alzaga diputatua museoaren alde mintzatu izan baita. “Beraien artean kontraesanean dabilzala dirudien arren, guk argi daukagu herritarrekin jokatzeko ari direla”.

AZPIKO UREN GARBIKETA, BI URTEKO ETENALDI BETEAN

Eusko Jaurlaritzako lehendakari kargu utzi baino lehen, Iñigo Urkullu Bizkaiko diputatu nagusi berri Elixabete Etxano-

“Iragarritako bi urteko etenaldia, moratoria da; egunero ikusten ari gara etorkizunean izan ditzaketan oztopoak gainditzeko lanean ari direla”

Txema Garcia

berekin elkartu zen, aurtengo urtarri-lean. Etxanobe berak zuzentzen duen Guggenheim Bilbaoko patronatuaren izenean adierazi zuen “bi urteko gogoeta garaia” ireki behar zutela Urdaibaiko proiektuari buruz. Hauteskunde ziklo betearen beraz, “gogoeta egiteko unea”.

Txema Garciak bestela ulertzen du kontua: “Bi urteko moratoria bat baino ez da, egunero ikusten ari baikara balizko oztopoak gainditzeko lanean ari direla. Arlo guztietan ari dira, gainera. Zailtasunei aurre egiteko lanean, dena soiltzen, proiektua aurrera atera ahal izateko. Errealitatea hau da: Dalia bota dute, eta beste arlo askotan mugitzen ari dira. Judizialki, esaterako, urratsak ematen ari dira, museoaren proiektua errazteko”.

Urtarrileko hitzak haizeak eroan dituela ematen du; Urkullu lehendakari ohia da egun. Bizkaiko Foru Aldundiko edozein eledunek, prentsaren aurrean edo irrati publikoetan izan duen agerraldi bakoi-tzean, Gernikako eta Muruetako proiektuaren alde sutuki berba egiten du.

Txema Garciaren ustez, “haintzat hau bideragarria da hasieratik”, eta “bideragarri egingo dute”. Eider Gotxik, berriz, zehaztu du proiektuaren ondorioetan ez dutela pentsatu ere egin nahi: “Bideragarria izatea nahi dute, bai ala bai, eskualde honetan, biosferaren erreserban izango dituen ondorioei begiratu gabe”. Esaterako, Daliaren eraisketako txostena nabarmendu du Gotxik: “Eraisketaren prozedurak eskatzen dituen urratsak ez dira jarraitu. Udan egin dituzte lanak, ekainean erabakiak hartu, buletin ofizialean atera eta herritarrek udan ezertaz ez jabetzea ekarri du horrek”.

Edozelan ere, bi urteko etena hasi eta berehala, Dalia eraistea esanguratsua dela dio Eider Gotxik: “Proiektuari errealitate itxura ematen dio horrek, ez da zer esaten duten, baizik eta zer egiten ari diren”. Txema Garciak eta Gorka Barbak, berriz, argi ikusten dute: “Urratsak ematen ari dira, baina ezer ez dago eginda, proiektua bera ez da existitzen, badaude aukerak hau gelditzeko... eta horretan ari gara, daukagun informazioa partekatzen, proiektuaren kontrako indarra kutsatzeko helburuz”.



Muruetako ontziola. Proiektuaren bigarren egoitza bertan egotea aurreikusten da.

ETENALDIA BALIATU, LANERAKO

“Etenaldia guretzat erronka izan da eta izango da”, dio Gotxik: “Tarte guzti honetan jendea aktibo mantendu gura dugu, horretan ari gara. Zaila da agintariak hausnarketarako urte bi hartuko dituztela esaten dutenean gaia pil-pilean mantentzea. Bi urteko pausa edo go-goetaldia hartuta, normala izan daiteke proiektua kolokan dagoela pentsatzea. Baina guk ikusten duguna kontrakoa da. Esan bezala, proiektua aurrera doa, administrazioetan urratsak emanez”. Plataformako kideentzat, beraz, helburua da jendeak ulertzea agintariak gauza bat esaten dutela publikoki, baina beste bat egiten ari direla ezkutuan.

Jendearen “narkotizazioa” aipatzen du Garciak: “Narkotizazio prozesu bat ikusten dugu, Daliaren kontuarekin garbiketa irudi bat eman nahi dute, Guggenheim proiektuarekin lotu barik. Akuiferoa garbitzen ari dira, amiantoa kentzen... gernikarrontzat onuragarria balitz bezala”. Baina argi utzi nahi du horren atzean Guggenheim proiektuaren oinarria ezartzen ari direla. Fabrika bota, museoa bertan eraikitzeko.

ERAGITEKO LANA, KALEAN ETA AUZITEGIETAN

Guggenheim Urdaibai Stop plataforma, kalean ez ezik, arlo judizialean ere ari da lanean. Horixe azpimarratu du Gorka Barbak: “Lan hori ez da horren argi ikustarazten, jendeak ez du sumatzen horren atzean dagoen lan guztia, kale mobilizazioarekin batera egiten den lana da”.

Eider Gotxi baikorra da arlo judizialean zein mobilizazio mailan egiten ari diren lana azaltzean: “Eremu biak paraleloan doaz. Kanean oso ondo ari gara, jendea informatzen badakigu, sare sozialetan sekulako lana egiten ari gara; baina epaitegietako eremua gure eskueetatik kanpo geratzen da, eta konfiantza guztiarekin abokatu talde batekin ari gara lanean. Eremu batek ezin du bestea ahuldu, biak indartsu behar ditugu”.

Konplexua da epaitegietako bidea. Bi bide dituzte zabalik. Lehenbizikoa, udalerriz gairidiko hitzarmen baten ingurukoa da: horixe egin dute Muruetan, Foruan eta Gernikan; 2023ko otsaila eta maiatza bitartean sinatu zuten hiru herreitarako alkateek. Izan ere, Gotxik azaldu duenez, administrazioek hainbat plan urbanistiko aldatu behar dituzte, eta horretarako beharrezko dute eskumena udalen gaindi egotea, Aldundiaren esku.



Gorka Barba, Txema Garcia eta Eider Gotxi, Guggenheim Urdaibai Stop-eko kideak



Gernikako Dalia enpresaren eraisketa

“Hau ez da eskualde mailako kontua; inguru natural hau guztiona denez gero, euskaldun guztion ardura da defentsa egitea”

Eider Gotxi

Gotxik eman ditu azalpen xeheagoak: “Guk Muruetako HAPO horri alegazioak jarri genizkion. Izan ere, Muruetako ontziola kokatuta dagoen lurraren kalifikazioa aldatu nahi dute, *industrial*a dena

gaur egun, berrian *ekipamendu* izatea eskatzen da. Alegazioak aurrera egitea lortuko bagenu, industrial den lurraren gainean ezingo litzateke museoa eraiki”.

Eta bigarrena: Kosta Legearen aldatetari ere helegitea aurkeztu diote Espainiako Auzitegi Nazionalean. 2021eko urriaren 8an, Bizkaiko Aldundiak Espainiako Trantsizio Ministerioari zera eskatu zion: jabetza murrizketa gauzatzea, ehun metrotatik hogeira. Zertarako? Gotxiren arabera, museoa kokatzeko espazioa behar dutelako. “2023ko urrian publiko egin zuten hori, eta mundu guztia ohartu da orain, murrizketa gauzatu dela, eta guk demanda aurkeztu diogu, helegite horretan Kosta Legearen jatorria oinarritzat hartzeaz gain, badaude eta akats administratibo batzuk. Esaterako, eskakizuna egin eta gauzatzeko

epealdia irauungi egin zitzaizen, hamar hilabetez”, dio Gotxik.

Horrez gain, bada beste kontu bat: nork eskatu behar du, legalki, murrizketa hori? Galderari atoa eman diote erantzuna herri plataformako kideek: “Jabeak. Eta lur horien jabea egun Astilleros de Murueta ontziola dela diosku Aldundiak, nahiz berak erosteko prozedura abiatua duen. Beraz, murrizketa ezin du, oraindik, Diputazioak eskatu. Alde horretatik ere baliogabetzat jo daiteke eskaera bera”.

MOBILIZAZIO NAZIONALA

“Hau ez da eskualde mailako kontua; inguru natural hau guztiona denez gero, euskaldun guztion ardura da proiektu hau gelditzea”. Horixe adierazita iragarri dute urriaren 19ko mobilizazioa.

Euskal Herri mailako erantzuna artikulatzen ari dira. Euskal Herri oso-ko eragileekin ari dira harremanetan, besteak beste artista, kirolari, herri mugimenduetako kide, ingurugiroaren aldeko ekimen eta elkarte, norbanako eta kolektibo... Baikortasunez hitz egin du Gotxik: “Busturialdeak badue- la zer esana erakutsi nahi dugu. Due- la urtebete ere erakutsi genuen, kasu



Muruetako teilagin zaharraren eremua. Proiektuaren gune esanguratsuetako bat da.

handirik egin ez diguten arren, eta berriro esango dugu, ozenago adieraziko dugu... Ziur gaude askoz handiago izango dela aurtengo manifestazio hori, dagoeneko nabaritzen ari baikara”. Hain zuzen, plataformako kideen arabera, iaz “oso urrun” ikusten zuten jende asko hurbiltzen ari zaie, interesatuta eta lanera.

Hala eta guztiz ere, informatzen segitu beharra argi dute. “Busturialdetik kanpo nork ezagutzen du proiektu hau?”, galdetu du kezkatuta Gotxik. Hitzaldi ugari ematen ari dira plataformakoak, bereziki Gotxi, eta nabaritu du kostatzen ari dela jendeak interesa adieraztea. Baina lortzen ari dira, bai behintzat atxikimenduak. Zerrenda amaiezina dela diote. ●

Elhuyar Zientzia Azoka 2025

Izena emateko epea zabalik

Informazioa eta izen-ematea: zientzia-azoka@elhuyar.eus

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Bizi ikerketa!

zientzia

azoka

elhuyar





Hitz gezidunak

NAFARROAKO HERRIA ERORITAKO HOSTOEN MULTZO	PERTSONAIAREN ABIZENA LETRA IZENA	ADINA, BEZAINBAT	IBAI ARRIETA / ARGIA - CC-BY-SA 	KIROL LASTERKETA ZEHARO, ARRAS	UR KORRONTE NATURALA NAFARROAKO HERRIA	SUA AMAIARAZI EZAUGARRI
HURA NAIZEN HAU				PERTSONAIAREN IZENA EGOKI, ERARA		
	101 ERROMA-TARRA XAMARRA JANZTEN DUENA		To, HI TXANOA	OINAZE GOGORRA LASTERKA, KORRIKA		
HORTZETAKO GAITZ SAUDI ARABIAKO HIRIBURUA					GOGOR GIZONEZKO ARTEKO HITANOA	
		LILURATU ELEMENTU KIMIKOA				LAU KEN BI ÁLTXOR
IKARAZ, IKARAN	ITSAS ARRAIN IZENA KALTZIO OXIDOA		URA IZOTZ BIHURTU ARRETAZ			AGIAN, AKASO
				JATETXETAKO JANARI ZERREDA DOMINISTIKU		
EZ EME TXERRIKI		NAFARROAKO HERRIA ARDI HITZ ELKARKETAN			AUPA, HEPA! GIPUZKOAKO HERRIA	
			HAUR HIZKERAN, JO AZPI, BEHE			BAT ERROMA-TARRA ZILARRA
KONTINENTE EZIN KANTATUZKO				TREBEAK, GAITUAK IODOA		
					NAFARROAKO IBAIA	

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	6	9	5					
7	5				2			8
8		4	9	7	1			
5	1	2	7		8	9	3	
	7			5	9	1		
	8		1					5
6	9	5	2				7	
							6	
1		8	6					

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ehun urte.
2. Beherantz joan.
3. Norantz.
4. Rap musikari kanadarra.
5. Antza, forma.

EBAZPENAK

1. MENDE
2. ERORI
3. NORAI
4. DRAKE
5. EITEA

1	2	8	6	3	7	5	9	4
3	4	7	8	9	5	2	6	1
6	9	5	2	1	4	8	7	3
9	8	3	1	2	6	7	4	5
4	7	6	3	5	9	1	2	8
5	1	2	7	4	8	9	3	6
8	3	4	9	7	1	6	5	2
7	5	1	4	6	2	3	8	9
2	6	9	5	8	3	4	1	7

K	V	A	N	Z	V	A	N	N	V	A
A	R	A	I	A	P	O	R	O	E	
G	A	V	I	V	A	I	O	A	K	
V	A	R	S	T	S	V	T	A	I	U
A	S	A	T	S	V	T	A	I	R	D
R	I	O	A	K	N	V	A	N	R	V
I	O	A	K	N	V	A	N	R	V	
P	E	U	E	U	K	V	R	N	A	R
E	U	P	E	U	K	V	R	N	A	R
V	A	R	T	A	K	V	R	E	T	A
A	R	T	A	K	V	R	E	T	A	
I	B	I	U	Z	O	Z	I	O	E	R
I	B	I	U	Z	O	Z	I	O	E	R
R	I	V	A	D	O	X	R	V	A	D
L	I	V	Z	V	X	T	N	V	X	L
I	R	V	Z	V	X	T	N	V	X	L
I	R	V	Z	V	X	T	N	V	X	L
V	A	R	A	E	S	T	I	C	I	N
Z	A	V	A	O	L	A	T	A	B	E
T	A	B	A	V	E	R	B	E	L	O
I	K									E



Lurrari lotuta, patatak bezala

IÑIGO SATRUSTEGI STUART MC DONALD

Heldu da herrira Madame Señorita. Ais. Ospea, fama eta sona sinonimoak dira eta denak dira andre honen izenondo. *Ukertuko duzue nire posizioan ezin naizela hemen geratu.* Baina gauza asko ditu kontatzeko, eta ezin helikopteroan igo dabil. Oholtza berea da eta soinean daraman jantzi arrosa eta purpurina paseatzen ditu. Begira nazazue zeinen ospetsua naizen, eta zeinen ongi kantatzen duan. Begira nazazue, nire prakak izarrak bezain distiratsuak dira, ni ere izar bat naiz. Begira nazazue ze harroputz mugitzen naizen, famatuak bezala. *Bye-bye.*

Juan Carlos publiko artean dago, bere bikotekide ohia-edo. *Juan Carlos, hemen zaude? Nolatan?* Kontatu digu herritik alde egin behar izan zuela patata-zelai artean bizitzeak barruak ustelduko ziz-

kiolako. Amak ez zuen begi onez ikusi. Ikusleen artean lehen lerrokoari eman dio amaren rola. Janis Joplinen *biopic*-a grabatzen ari da, eskerrak aitari, ihes egiteko patrika bete zionari. Tarteka bere talentuetako batzuk erakutsi dizkigu, dohainik: dantza, kantua, gitarra.

Bigarren kantu bat eskaini digu, baina gure kiratsetik babesteko plastikoa jantzi du. Hemen hasi da dena. Publikoarekin sartzan hasi da kondoiaren azpian. Gizon bat limurtzen hasi da, gero eta gertuago, eta gertuago. Gizonaren erantzuna izan da onena: eskimalen musu bat eman dio. Bai, sudurrak elkarri igurtzi dizkiote, eta bitartean gizon horren emaztea negarrez, baina irriaren irriz. *Morreo* bat ere eman dute, plastikoa tarteko.

Oholtzara itzuli da Madame. Erakutsi dizkigu urteotan guztiotan egindako lanen

HERZ

NORK: Madame Señorita
(Paula Sáenz de Valluerca)

NOIZ: Irailaren 29an.

NON: Nafarroako
Antzerki Eskolan (Iruñea).

lagin batzuk. Klimaxa nahi zuen, zerbait epikoa, herritarrei ulertarazi zergatik egin zuen ihes: talentua da Madame. Aureskua lagun baten txistuaren laguntzarekin, operara kantatu, Almodovarren nesketako bat, Fernanda (ez Bernarda) Alba ama alargun aspergarria gero dementore bihurtuta. Baina klimaxaren bila *beti funtzionatzen duen hori* egin du: kulerotan geratu, titiak igurtzi, mitxelinak dantzan jarri.

Azkenerrako onartu digu, ez dela hainbesterako. Ez dela hain ospetsu, famatu, sonatu. Haur bat daukala, eta lasaitasuna nahi duela. Erakutsi dizkigun talentu guztiak bai, egin dituela, baina tira, purpurina pixka bat jarri diela istorioei. Lotsatuta tapatu da, eta aitortu du agian itzuli nahi duela, lurrari lotu, patata bat bezala, eta agian, usteltzea ez dela hain plan kaxkarra. ●



LIBURUA

Argia, aldika



SUSA

ARGIALDIAK

MIRIAM LUKI

SUSA, 2023

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lukiren narrazio liburua hamarna orriko (gutxi gorabehera) bederatzi ipuin laburrez dago osatuta: *Argialdiak*. Izenburutik abiatuko gara, izan ere, argialdi hitzak argitasuna, araztasuna, distira, poza, alaitasuna esan nahi du. Baina ipuinetako egoerak zailak dira; hotzak, deserosoak, batzuetan ilunak. Eta pertsonaia asko haserre, triste, perturbatuta daude. Zergatik argialdiak orduan? Arre edo iso egitera animatzen dituen argialdi desberdinak daudelako ipuinotan: pertsonaia bat, hitzen bat, mezu bat, albiste bat...

Ipuin batzuk hirugarren pertsonan idatzita daude; beste batzuetan ahots bakarra ezagutuko dugu eta pertsonaia bakarraren ikuspegia ezagutuko. Eta badago bi ahots erabiliko dituen ipuini. Tonuak ere anitzak dira, eta oso modu interesgarrian erabili ditu: *Lau*

hankan ipuinean, adibidez, erabiltzen duen ironiak klase sozialagatik dagoen botere harremana kritikatu nahi du eta pertsonaietako bat erridikulizatu.

Espazioari dagokionez, egunero-kotasuneko espazioak direla esan genezake, eta denak dira espazio itxiak: okindegia, harategia, etxea, erbestea, kartzela, kotxea, sukaldea, baserria edo egoitzako logela... Lanlekua –ipuin askotan oso modu zehatzean deskribatua– edo bizitokia, ordu asko egoten diren lekuak dira. Batzuetan pertsonaien aterpea da kokalekua; besteetan, ordea, itolarria sortzen duena hori berori izan daiteke.

Egituran, nahiko zirkularrak dira narrazioak. Momentu konkretu bat kontaktzen digute, eta hasierako egoera bukaeran argitzen da gehienetan. Atzera-aurrerakorik erabili gabe per-

tsonaien barne munduak erakusten dizkigu nondik norakoak.

Narrazio bakoitzak estilo propioa duen arren gehienetan dagoen elementu estilistiko bat aurkitu dut liburuan. Ipuin guztiek dute irudi indartsu bat, oso bisuala dena eta efektu pizgarria sortzen duena: komunean beldurrez sartu den Nora, lau hankatan besteek botatako apurrak jasotzen ari den langilea, burua handitzen ari zaion protagonista, labana eskuan duen harakinarena eta abar. Horretaz gain, deskribapen zehatzak egiten ditu autoreak, ahotsekin jolastuz plano desberdinak erakusten dizkigu eta istorio bakoitzean itxi gabeko zirrikituak uzten ditu.

Ipuin motzak izanagatik poliki eta arretaz irakurtzea eskatzen dutelakoan nago, kontaktzen eta esaten ez denak garrantzia baitu liburu honetan. Irakurri ahala irakurleak pentsatzen duenak, alegia. ●



MUSIKA

Post-punkaren aterkipeko distirak



MIKEL G. MANCHO

IKER BARANDIARAN

zenaren adieratik gutxi dauka, gaur egun, Bilbon sortutako hirukoteak. Are gehiago, partaideen ibilbideak joan dira garatzen eta aldatzen. Marga Alday ezaguna da, batez ere Moonshakers-en sortzaileetako izateagatik; eta Jordi Vilak ibilbide oso luzea dauka: Trogloditas-eko kide izan ostean, aritu da La Broma de Satan, Corazones Negros eta Angryman taldeetan, besteak beste, makilak eskuetan. Eta *power* hirukote honen azken partaidea Mikel G. Mancho da, diseinatzaile fina izateaz gain, Los Vibradores eta antzeko punk taldeetan gitarra jotzen ibilitakoa.

Kinky Boys 2018an sortu zen Marga eta Jordiren ekimenez, eta poliki-poliki, gitarra jotzailea aurkituta, kantak idaz-

ten eta grabatzen hasi ziren. Hasierako lanek taldekideen DNAn dagoen rock-and-roll zikina zuten oinarri, baina harago joan nahi zuten, *siniestro*tik eta after punk-aren giro eta tematikatan. Ana Curra, Usher-tarrak eta beste oso presente egon dira kantutegian.

Mikel batu denetik, baina, kantei bestelako distira ematea lortu dute. Esango nuke asmatu dutela bestelako koordenadatarara salto egin eta kantak bere egiten, bereziago eta pertsonalagoak direnak; eta post punkaren aterkipe zabalean aritzen badira ere, *siniestro*agoa zena anitzagoa da orain. Azkeneko lana, haien bosgarrena, *El país de las maravillas*, horren erakusle da: haien eguneroakoaren lekuko den *La ría* metaforikoa



EL PAÍS DE LAS MARAVILLAS

KINKY BOYS

AUTOEKOIZPENA, 2024

Magazine-ren pareko gitarra garden baina sarkorrak zabaltzen du, eta Margaren ahots tonu irmo eta ia errobotikoak sorgintzen gaitu; ordurako Vilaren erritmo jostariak eta Mikelek Ilegales-en traza duen kantu elegante eta itsaskorra bilakatzen dute. *Denso y aereo*-k kutsu dantzagarriagoa dauka; gogora ekartzen dit The Cult, baita leloetan Godfathers-en kadentzia ere, britaniarra erabat; baina badu era berean after punk-etik, tribuetako errimoetatik eta ukitu sasi-elektronikotik. *Atrapado*-n sustraietara datoz bueltan, tenpo erdiak eta rockaren garratzasuna uztartuta, blues-rockean sakonduta. Eta, azkenik, *El país de las maravillas* kabareteroa da, hausnarketa-aren jolas xuxurlari eta lizuna. ●

Zure bizitzako lanpostua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pantaila horren aurrean eseri ohi zen P.S., 26 urte. Bi urtez, goizeko bulegora iristen zen, fitxatzen zuen, kartoizko edalontzitik kafesnari zurrupadatxo bat eman, hasperen egin, kaskoak jantzi eta luzamendu gehiagotan ibili gabe hasten zen ikusten errebisatzeko zeuzkan bideoak.

Nerabe batzuk, auzoa ez zaio ezaguna egin. Haietako batek, kaputxadun jertseaz jantzita dagoenak, kamerari oihukatzen dio, utzi bakean, ez dut ezer jakin nahi. Eta alde egiten hasten da, baina orduan planoan agertzen dira beste hiru tipo, handiagoak. Denak azkarrago mugitzen hasi dira, lasterka: kaputxadun jertsea daukana, haren atzetik doazenak, plano bera, korrikaldiagatik saltoka. Parke batera iristean egonkortu da irudia berriz, harrapatu dute, txirristaren azpian gordetzen saiatu da, baina arrastaka atera dute eta ostikoka eta ukabilka ibili dute trapuzko panpina bezala, grabatzen ari denak barrez marikoi puta bat dela oihukatzen dion bitartean. Algarak biderkatu egin dira jazarleetako batek konorterik gabe datzan gaztearen

ganean pixa egin duenean. P.S.-k ez du asko pentsatu behar izan: ez da publikatzeko modukoa.


Ulertzen ez duen hizkuntza batean ari dira hurrengo bideoan. Gela ilun bat, soto batekoa dirudi. Erdian, aulki bati lotuta, tipo bat biluzik. Galtza militarrek, kamiseta beltza eta aurpegia estalita dauzkan gizon gihartsu bat hurbiltzen zaio eta zerbait esaten dio, ez oso altu, baina ezta oso modu atseginean ere. Eserita dagoenak, negarrez, ezetz egiten du buruaz. Eta, orduan, plano gerturatu egiten da, aurpegia estalita daukanak eskuan hartzen ditu normalean zuhaitzak kimatzeko erabiltzen diren guraizeak, aulkikoari eskuineko eskua askatzen dio, haren atzamar erakuslea hartzen du eta, klask, haragi eta hezur moztu berrien hotsa garbi entzun zuen P.S.-k kaskoetan, segundor erdi geroago hasi baitziren oinazezko garrasiak, bideoari falta zitzaizkion 43 segundotan isildu ez zirenak eta P.S.-k osorik entzun behar izan zituenak, kontratuan hori jartzen baitu, bideoak osorik ikusi behar direla erabaki aurretik: ez da publikatzeko modukoa.

Belauniko dago neska bat, aurpegia beldurrez puskatuta. Grabatzen ari denaren zakila planoan agertu da, neskak ahoan sartu du; eta zuputzen ari den bitartean, grabatzen ari denak ukabilkada bat eman dio buruan; putatzarra, esan dio, beste ukabilkada bat, neskari malakoak irristatzen zaizkio masailetan behe- ra, hurrengoan hobeto pentsatuko duzu edozeinekin hankak ireki aurretik. Ez da publikatzeko modukoa.

Goizaren erdian beste kafe bat hartzera joan ohi zen P.S., eta makinaren inguruan entzuten zituen CCC enpresako lankideak, bart gauean Bartzelonak Championsean izandako deskalabruaz hizketan. Baten batek, beharbada, esango zion zurbil samar ikusten zuela azkenaldian. Gero P.S. pantailaren aurrera bueltatzen zen, Facebookera eta Instagramera kargatzen zituzten bideoak filtratzen jarraitzeko Lehentasun Handiko Taldean: bortxaketak, automutilazioak, torturak, dekapitazioak eta suizidioak ikusi behar zituen egunero. Gauean lo hartzeari beldurra hartu zionean hasi zen pentsatzen zerbait ez zihoala ondo, baina amets horiek noizbait desagertuko zirela pentsatu zuen. Gero etorri zen lagunak saihesten hastea –zer kontatuko zien ba, pantailan ikusitakoa?–. Eta egun osoak hitz egin gabe pasatzen hasi zen. Goiz batez, ohetik ere ezin izan zuen altxa. Arnasa hartzen zuen, bai, baina hura bizirik egotea al zen?

Lau urte pasa dira P.S.-k lan hura utzi zuenetik. Joan den hilabetean jakin genuen jasandako kalte psikologikorenatik Mark Zuckerbergen Meta multinazionala salatu duela. 150.000 euroko kalte-ordaina eskatu du. Txori kaka bat.

Orain M.J. esertzen da lehen P.S.-rena zen pantailaren aurrean. Egunero fitxatzen du, kafeari zurrupadatxoa eman, kaskoak jantzi, hasperen egin. Play. ●



Lagundu euskal kazetaritza independentea ikastetxe guztietara eramaten!

Eskatu zure hezkuntza
zentroko arduradunei **ARGIA**ko
harpidetza egiteko



Haziak

Zergatik eta nola egin zureak

280 orrialde, 211 argazki

Marc Badal eta Miguel Arribas Kelo

Liburua 26€

